

# ASTELEHENKO


# Goienkaria

2008ko abenduaren 15a > Astelehenetan > VI. urtea > 214. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Indar metaketa bat beharrezkoa da eta horrekin batera lider politiko sendo bat"

Joseba Ariznabarreta  
Orreaga taldea > 06



## G2a

Danbaka: beste lau talderen erakustaldia > 23

### DEBAGOIENA

Ibarreko anbulantzia medikalizatua asteon hasiko da Oñatin lanean > 05

### ARRASATE

Pedro Biteri filantropoa gogora ekartzeko hitzaldi-zikloa > 09

### KULTURA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Bergaran egin du emanaldia > 26

Iritsi dira abenduko opariak!  
Badago zuretzat?

Zoaz 2. orrialdera

EKONOMIA > MONDRAGON

Erreleboa  
Euskadiko  
Kutxako  
zuzendaritzan

Txomin Gartzia Ulma taldeko zuzendari nagusia proposatu dute Euskadiko Kutxako presidente izateko. Azken urteotan Euskadiko Kutxako buru izan den Juan Mari Otaegi bergararra martxoan erretiratuko da eta haren lekua beteko du Gartzia donostiarra. > 04

EUSKARA > KATALOGOA

Euskarazko  
opariekin  
dator  
Olentzero

Udalek katalogoa  
kaleratu dute > 02-03

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05  
Elkarritzeta > 06  
Iritzia > 07-08  
Herriak > 09-14  
Kirola > 15-22  
Kultura > 23-27  
Sailkatuak > 28  
Irrati-Telebista eta  
Hitzorduak > 29  
Berri-zakua > 30-31  
Azkena > 32



MAIDER UNDA Olaetakoak beste hainbat lagunekin batera jardun zuen atzo Aramaion. Borroka librearekin gozatu zuten ikusleek.

JOSETXO ARANTZABAL

KIROLA > BORROKA LIBREA

## Herritarren omenaldia jaso du Unda olinpikoak

ERAKUSTALDIA Kirodegian  
batutako herritarrek arreta handiz  
jarraitu zuten borrokalarien saioa

OMENALDIA Aramaioko Udalak  
Maider Unda omendu zuen, Pekingoko  
Olinpiadetan egindakoagatik > 20

KIROLA > ESKALADA

Santamas  
boulder  
txapelketan  
giro ederra

Euskal Herriak  
Arrasateri irabazi  
zapatuko erronka > 15

**SUPER AMARA**

**DENAK GUTXIAGO BALIO DU**

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkaleku

Spirit of our times. New Ford Fiesta.

MUGARRI AUTOAK Araba Etorbidea, 2/g ARRASATE

**Goienkaria**  
astehenean, aste bukera osoa

## Harpidedunen txokoa

### Azaroko irabazleak

Sariak irabazteko  
**HARPIDETU!**  
Tel.: 943 08 10 50

ZU IZAN ZARA IRABAZLEA,  
ZORIONAK!

<b>SARRERAK</b>	
BRUESA- FC. Barcelona	BRUESA- GRANADA
Esteban Barandiaran Fdez. de Jauregi (Arrasate)	Koro Zelaia Mendizabal (Oñati)
Floren Arana Barandiaran (Arrasate)	Angel Agirreazaldegia Gallastegi (Zarautz)

<b>BONUAk</b>	
Mertxe Kalparsoro Esteibar (Aramaio)	
Idoia Lasa Elgezua (Elgeta)	

<b>JOKUAk</b>	
Juan Arriolabengoa Lasaga (Aramaio)	
Beñardo Balerdi Gomez (Arrasate)	
Esther Gardoki Errasti (Aramaio)	
Agustin Bolinaga Zubia (Oñati)	
Pablo Berezibar Arevalo (Eskoriatza)	
Maribi Visitacion Zabaleta (Bergara)	
Miren Murua Olalde (Arrasate)	
Marta Agirreurreta Barbero (Arrasate)	

<b>BONUAk</b>	
Uxue Zabaleta Arin (Bergara)	
Mila Goikoetxea Arizmendi (Arrasate)	

**SARI NAGUSIKO IRABAZLEA:**  
JOSE ANTONIO AMONDARAIN ARANA (Oñati)  
**"LA PERLA" TALASOTAPIARAKO BONOa (10 SARRERA).**

EUSKARA > EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA

# Olentzerori euskarazko opariak eskatu ahal izateko liburuxka dago

**BAILARAKO ZAZPI UDAL** Azken urteotan egin den moduan, Debagoineko zazpi udalek euskal produktuen katalogoa argitaratu dute

**IKASTETXEETAN** Hamasei urte beherako umeek eta gaztetxoek aurtengo eskaintza jasotzen duen liburuxka jaso dute ikastetxeetan

**MIRIAN BITERI > BERGARA** Gabonak gertu daude eta inguru-koen oparietan pentsatzen hasi beharra dago. Garai ona da umeei zein gaztxoei euskarazko liburuak, filmak edo musika oparitzeke. Azken urteotan egin den moduan, euskarazko produktuen katalogoa argitaratu dute bailarako zazpi udalek: Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Antzuola, Elgeta eta Aramaio.

Ohikoa den bezala, katalogo horiek ikastetxeen bidez banatu zaie 16 urtetik beherako haur eta gazteei. Dena den, eskolan jasotzen ez dutenek, esandako herrietako udaletxeetan eta kultura etxeen topatuko dute. Euskal Herri osoan, guztira, 266.000 liburuxka inguru banatuko dira; horietatik, 10.050 Debagoinera etorri dira.

Aurtengo katalogoaren paperrezko edizioak 317 produktu jaso ditu. Ekimen horren koordinatzaile Malores Etxeberriak azaldugu, horren harira, argitaletxeek bidalitako produktuen artean aukeraketa egiten dutela eta irailerrako liburuxka hori egina utzi behar izan dutela, ikasleen eskuetara garaiz hel dadin. Beraz, urteko azken hilabeteotan kaleratzzen diren produktuen berri ez da jasotzen horretan.

**INTERNETEN 400 PRODUKTU** Bainan, Interneteko edizioan garai horretan argitaratutakoaz gain, argitaletxeetatik jasotako produktu guztien erreferentziak daude: la gogorarazi du koordinatzaileak. Denera, 400 produktu inguru aurki daitezke [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) webgunean.

Etxeberriak aipatu du paperrean zein Interneten ageri diren produktu guztiak merkatuan dau-

dela salgai eta beraz, katalogoari begirada eman ostein eta produktua aukeratu ostein, aukera bi daudela eskuratzeko. Batetik, ohiko saltoki edo liburu-dendetara joanda eta bestetik, Internet bidez. Horren harira, nabarmendu gura du [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) webgunearen bidez ezin dela erosketarik egin. Bainan, erreferentzia batzuetan informazio gehiago jasotzeko aukera ematen dute, argitaletxeen webgunera sartuz: "Argitaletxe batzuek Internet bidez erosketak zuzenean egiteko zerbitzua eskaintzen dute".

**EROSLEENDAKO MEZUA** Saltokietara eta liburu-dendetara joaten direnendako mezua helarazi gura izan du. Saltzaileen artean ere euskarazko produktuen katalogoa banatzen da eta normalean, produktuak dendentzat izaten dituzte.

Gerta daiteke, baina, eskatutako han ez edukitzea: "Kasu horretan, saltzaileei baino ez diote eskatu behar. Denda txikietan tratu pertsonalagoa eskaintzen dute, saltoki handietan baino, eta eskatutako egun batean izan ahal izango dugu askotan".

**11. EDIZIOA** Aurtengoa 11. aldia da katalogoa argitaratzen dena. Ekimena Nafarroan jarri zen martxan lehenengo urteetan, han baino ez zen argitaratu. Handik gutxira, baina, Gipuzkoako Buruntzaldeko Udalak interesatu ziren eta nafarrekkin batera antolatzeari ekin zioten. Jarraian, Gipuzkoako beste hainbat udal gehitu zitzaizkien; tartean, Debagoinekoak.

Lau helburu nagusi ditu katalogoa. Lehenengoak gurasoei erakutsi gura die haurrek euska-



Bergarako Elkar denda katalogoa azaltzen diren produktu gehienak dituzte; herritar asko liburuxkarekin joaten da dendara.

GOIENKARIA

raz eskolatzearekin bakarrik ez dela ziurtatzen umea euskaldun oso izango denik eta horren aisia dia oso importantea dela euskara berraganatzeko. Bigarrenik, gurasoei aditzera eman nahi dio auke ra asko daudela haurrari euskal heziketa emateko, nahiz eta hain euskaraz ez jakin. Hirugarrenak, haur eta gaztetxoen artean aisia diko euskarazko produktuen eskaintza ezagutzen ematea bila-

tzen du; eta azkenak, euskalazko produktuen eskaera bultzatzea gura du, merkatua dinamizatzu eta indartuz.

#### ZORTZI ATAL

Katalogoa, bestalde, zortzi ataletan dago banatuta: musika, filmak, aldzikariak, komikiak, liburuak, gurasoendako materiala, informatika eta jostailuak eta jokoak. Adinaren araberako sailkapena egiten da zenbait ataletan.

Horretan denetarik aurki dai teke. Etxeberriak azaldu du produktu klasikoak eta urte bakoi tzeko berrikuntzak sartzen saiatzen direla. "Gure irizpide nagusiena ez da produktu berriak sartzea. Betiko produktuei ere garrantzi handia ematen diegu, kalitate handikoak dira-eta".

Berrikuntza gehien dituzten atalak musikarena eta liburuena dira. Besteak beste, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen *Piratak*; Debagoieneko Belceblues edo Gose taldeen diskoa eskura daiteke; baita Danbakako II. musika lehiaketa eta Des-Kontrol taldeko *10 urte* izeneko DVDAk. Bestalde, joko eta jostailuetan ez dago hainbeste mugimendurik, azken urteotan produktu berri asko atera badituzte ere.

Etxeberriak, azkenik, iragarri du euskarazko produktuen katalogoa ez dutela bakarrik Gabonetara mugatu nahi eta beraz, ikasturte osoko eskaintzak emateko lanean dihardutela.

#### ESANAK

**"Irizpide nagusiena ez da produktu berriak sartzea. Betiko produktuei ere garrantzia ematen diegu"**

M. Etxeberria > Koordinatzailea

#### DATUA

**10.050**

#### LIBURUXKA

Debagoienean 10.050 liburuxka banatu dituzte ikastetxeetan: Arrasaten, 3.100; Aretxabaletan, 2.500; Bergaran, 2.000; Oñatin, 1.500; Antzuolan, 800; Elgetan, 100; eta Aramaion, 50.

## Saltzaileen arabera debagoiendarrek musika eta liburuak eskatzen dituzte bereziki

Arrasateko eta Bergarako Elkar dendetan katalogoko produktuak dituzte. Musika eta liburuak dira eskatuenak. Euskal musikan, hainbat egile euskaldunen kantu jasotzen dituen *Gu gira*; Kepa Junkeraren *Etxea*; Gatiburen *Laino guztien gainetik*; Otoitz antologia eta Mikel Laboaren eta Pirritx eta Porrotxen diskoka saltzen dira gehien. Gaztelaniazko musikari dagokionez, AC/DC, Amaia Montero eta Guns&Roses taldeak dira eskatuenak.

Euskarazko literaturan Xabier Montoiaaren *Boicot*; Kirmen Uriberen lanak; Toti Martinez de Lezearen *Otalorea*; Joan Mari Irigoienen *Bestea da mundua*; Xabier Leteren *Egunguentiareneku izoztuak*; eta Edorta Jimenezen *Ispiluaren kalteek* daude. Ume eta gazteen artean, Sua argitaletxearen *Mari ttipia*; Toti Martinez de Lezearen *Nur eta irlander gnomoa*; Iñaki Mendigurenen *Harry Potter eta herioaren erlikia*; Antxon Irazustaren *Athletic gurea*; eta Pirritx eta Porrotx *sukaldean* saltzen dira.

LIBURUAK			
0-5 urte			
<i>Abentura handia</i> Ibaizabal <10 € ISBN 9788483941775	<i>Antton eta neskak</i> Alberdania 10-20 € ISBN 9788498680300	<i>Argitxo krisel-luaren bila</i> Ikastolen Elkarte <10 € ISBN 9788477036623	<i>Kolore 4</i> Tarttalo <10 € ISBN 9788498430905
<i>Basotxo eta dantzak</i> Erein <10 € ISBN 97884974464079	<i>Caillou handitzen-handitzen</i> Aizkorri 10-20 € ISBN 9788482635552	<i>Caillou jostai-lauak</i> Aizkorri <10 € ISBN 9788482635552	<i>Erantsi 1</i> Tarttalo <10 € ISBN 9788498431032
<i>Gela narrasa!</i> Cach Díaz <10 € ISBN 9788498430851	<i>Certai Handia</i> Pamiela/Kalandraka 10-20 € ISBN 9788476815389	<i>Hurbil</i> Pamiela / Kalandraka 10-20 € ISBN 9788476815649	<i>Ipuin-kontalaria</i> Aizkorri <10 € ISBN 9788482633671
<i>Jon zikinaren anaia</i> Erein <10 € ISBN 9788497461429	<i>Kamile etxaldean</i> Tarttalo <10 € ISBN 9788498431353	<i>Kamile hondartzan</i> Tarttalo <10 € ISBN 9788498431360	<i>Txikimargo 4</i> Tarttalo <10 € ISBN 9788498431025
<i>Kamilek</i> Ibaizabal <10 € ISBN 978848390983	<i>Zer ari naiz ikusten?</i> Ibaizabal <10 € ISBN 9788483940983		

12 euskarazko produktuen katalogoa 2008-2009

Euskarazko produktuaren katalogoko hainbat produktu.

GOIENKARIA

EKONOMIA &gt; EUSKADIKO KUTXA

## Txomin Gartzia, Euskadiko Kutxako presidente martxoan

**Ulma Taldeko Zuzendari Nagusia da Euskadiko Kutxako presidente izateko hautagaia; Otaegik erretiroa hartuko du**

**ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE**  
Txomin Gartzia Ulma Taldeko Zuzendari Nagusia da Euskadiko Kutxako presidente izateko hautagaia. Juan Maria Otaegi martxoan erretiratzen dela kontuan hartuta, beharreko ikusi dute Euskadiko Kutxaren Lehen-dakari karguaren ordezkapena kudeatzea. Hala, Euskadiko Kutxako organoaren arabera kargu horretarako aukerarik egokienak Txomin Gartzia da.

**HAINBAT KARGU**  
Txomin Gartzia 49 urteko ingeniari industriala da; eta, orain



Txomin Gartzia.

arte inoiz ez du finantza arloan lan egin. Gaur egun Mondragon Industria Sistemako presidente-ordea ere bada Txomin Gartzia; gainera, Ikerlaneko eta MIK Kudeaketa Ikerketa Zentroko presidente, eta Innobasque Enpresa eraldaketa arloko eta Mondragon Enpresa Sustapenerako Zentroko presidente ere

bada Gartzia. Ulman egin duen lana dela-eta, Euskadiko Kutxako organoek hautagai egokiena dela uste dute. Hautagaitza honetan, Euskadiko Kutxak gaztetasunaren aldeko apustu garbia egin du.

### MARTXOAN, BATZARRA

Kontseilu errektorea osatzeko datorren martxoan egingo duten Ohiko Bazaar Nagusian Txomin Gartzia hautagaitza babestuko dute Euskadiko Kutxako organoek. Hortaz, prozesuari ekin diote, eta Batzarrean errektore izateko baldintza gaintitzen badu, Euskadiko Kutxako Kontseilu Errektoarek presidente izendatuko du Gartzia.

Gartzia Juan Maria Otaegi berigarra raren lekua hartuko du. Otaegi azken 19 urteetan da Euskadiko Kutxako presidente; hain zuzen, 1989an hatu zuen kargua. Gartzia Euskadiko Kutxako hirugarren presidente izango da.



Langileek Elgetan egindako protestak.

GOIENKARIA

**PROTESTAK > RECYDE, ELGETA**

## Enpresa batzordeak kaleratzea salatu du

Enpresa zuzendaritzak dio diziplina arrazoiak izan direla

**A. BARRUSO/A.EZKIBEL > ELGETA**  
Elgetako Recyde lantokiko enpresa batzordeko kideek elkarretaratzea egin zuten egubakoitzean orain dela bi aste izan-

dako kaleratze bat salatzeko. Sindikatuek diote inolako aurre-abisurik gabe egin dutela kaleratzea. Enpresa zuzendaritzak, bestetik, dio arrazoiak diziplinazkoak izan direla eta langileak espediente bat baino gehiago zituela zabalik. Gaineratu dute, egoera ekonomikoa ez dela batere ona eta nahikoa arazo dituztela aurrera egiten horrelako pertsona baten jarrearekin tiraka ibiltzeko.

AZOKA &gt; BEARTEK ANTOLATUTA

## Artea kalera atera dute bergararrek

Adierazi digute aurrerantzean urtero egin gura dutela horrelako erakusketa-azoka herrian

**A.E. > BERGARA**  
Erantzun ezin hobea izan du Beart elkartekoak atzo antolatutako pintura erakusketa. Eguraldia lagun izan ez zutenez, Irala kalean jarri beharrean udaletxe azpiko arkueetan jarri zuten erakusketa domekan.

**30 LAGUNETIK GORA**  
Beart elkarteko 30 lagun elkartu ziren plazan. Bakoitzak bere lau edo bost lan eraman zituen ikusgai; esan, erakusketa izateaz gain azoka ere bazela atzokoa. Hala,

gura zuenak pintura lanak eros-teko aukera izan zuen atzo Bergarako plazan.

**HERRITARRAK, HARRITUTA**  
"Harrera oso ona izan du erakusketa herritarren artean; gainera, jendea harrituta geratu da herrian zenbat artista dagoen ikusita", adierazi zigun atzo Rikardo Azkargorta Beart elkarteko kideak.

Gaineratu zuen aurrerantzean, data hauetan, urtero atera gura dutela artea kalera.



Beart elkarteko 30 lagunek margolanak atera zituzten atzo plazara.

MIREN ARREGI

## Euskarak batzen gaitu



Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85

Astelehenetik barikura eguneko menua

Asteburueta plater konbinatuak, ogitartekoak eta menu bereziak

OSASUNA > ANBULANTZIA MEDIKALIZATUA DEBAGOIENEAN

# Ibarreko anbulantzia medikalizatuak Oñatitik egingo du lan aurrerantzean

Debagoienari zerbitzua  
emango dion  
anbulantzia Oñatin  
aurkeztuko dute etzi

EDU MENDIBIL > OÑATI

Oraingo astean hasiko da ibarreko anbulantzia medikalizatua lanean. Hain zuzen ere, eguztenean, hilaren 17an, anbulantzia medikalizatua aurkeztuko dute Oñatin, 11:00etan. Anbulantzia Foruen Plazan egongo da ikusgai eta aurkezen ekitaldia Oñatikoa udaletxean egingo dute. Besteak beste, Edurne Egaña Gipuzkoako Lehendakaritzako diputatua; Mitxel Gonzalez Osakidetzako asistentzia sanitarioko zuzendarria eta Teresa Garmendia larrialdietako zuzendaria izango dira aurkezpenean. Era berean, Rafa Cerdan Osasun sailburuordea eta Debagoienerako alkateak gondidatu dituzte ekitaldira.

Debagoienerako zerbitzua eskainiko duen anbulantzia Zubillagako suhiltzaileen parkean



Anbulantzia suhiltzaileen parkean kokatuko dute, suhiltzaileek eta larrialdietakoek askotan elkarrekin lan egiten dutelako. GOIENKARIA

kokatuko dute. Izen ere, Oñati-koarekin eredu berri bat jarriko dute martxan, larrialdi irteeren portzentaje altu baten suhiltzaileek eta larrialdi zerbitzuek elka-

rrekin jarduten dutelako. Oñatikoa Gipuzkoako laugarren anbulantzia medikalizatua izango da: Donostian, Tolosan eta Elgoibarren dira besteak.

Anbulantziak 24 orduz emanago du zerbitzua. Mediku batek, erizain batek eta gidari batek jardungo dute eta, txandaka, 15 lagunek emango dute zerbitzua.

## Jaiotza biziduna egin zuten Oñatin, Gabonei ongi- etorria egiteko

Gabonak gainean ditugu eta igartzen da han eta hemen antolatutako ekitaldiekin. Egubakoitzean, esaterako, Elkar Heziketa Lehen Hezkuntzako neska-mutikoek Belengo jaiotza irudikatu zuten Oñatikoko plazan. Ohi denez, ikusmin handia piztu zuen jaiotza bizidunak. Era berean, ikasleen eta gurasoen laguntzaz, txokolatea eta etxeen egindako postreak jarri zituzten salgai eta batutako dirua Argentinara bideratuko dute. Zapataua, berriz, gobernuz kanpoko erakundeen azoka egin zuten Oñatin. Euskal Herriko etorritako hamabi erakundek hartu zuten parte azoka solidarioan.



JOSETXO ARANTZABAL

> LITERATURA  
**Mikel Hernandez  
Abaitua eta Eider  
Rodriguez Arrasaten**

Arrasateko Udal Liburutegiak antolatzen dituen literatura solasaldien barruan bi hitzordu izango dira oraingo astean: batetik, bihar, martitzena, Mikel Hernandez Abaituaren *Ohe bat ozeanoren erdian* izenburuko lana aztertuko dute partaideek egilearekin batera.

Bestetik, egunean, hilaren 18an, Eider Rodriguez Y poco después ahora ipuin liburuarekin etorriko da Arrasatera. Bi saioak 18:30ean izango dira Kulturaren, Jokin Zaitegi gelan.

> ARETXABAleta  
**Hizkuntza ereduen  
aurkako protesta  
etzi Aretxabaletan**

Jaurlaritzatzako hizkuntza ereduen politikaren aurkako manifestazioa deitu dute etzi, eguztenea, Aretxabaletan. Tontxu Campos hezkuntza sailburuak lege proiektu berriaren markoa, ikasleak euskaldunduko dituen eredu baten aldeko apusturik ez dela egiten salatzen dute Euskal Herriak Bere Eskolak eta Euskal Herrian Euskarazek. *Iruzuraren legeari ez! Eskolak euskaldundu behar du!* lelopean, protesta egingo dute etzi, Mitarte kalean, 18:30ean.

> TOPAKETA  
**Bergarako UNED:  
literatura topaketa  
bihar Donostian**

Bergarako UNED ikastetxearen eskutik, Gaztelako, Galiziako, Kataluniako eta Euskal Herriko narratiba aztertzeko topaketa izango da bihar, martitzena, Donostia-koko Koldo Mitxelenan, 19:00etan. Mari Jose Olaziriggi Euskal Literaturako irakasleak zuzenduko du mahai-ingurua eta partaideak Juan Cruz, Andu Lertxundi, Biel Mesquida eta Manuel Rivas idazleak izango dira. Sarre-rra doanekoa da.



**SMS  
SERVIMASA**  
Sukaldeko altzariak eta osagariak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173  
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49  
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa  
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57  
20100 LEZO



**RENOVE PLANA**

*Etxetresna elektrikoak  
aldatzeko aukera aparta!*

Orreaga taldea 'Arrazonamendu politikoaren berreraikitza, askatasunerako arma bat' izenburu-

pean hainbat mahainguru egiten ari dabil Euskal Herrian barrena. Eguenean egin zuten Arra-

saten, eta Joseba Ariznabarreta izan zen hizlarietako bat. Orreaga taldeak, euskal gatazkaabia-

puntu, eztabaidea guneak sortzea du helburu, herri honen askatasuna ardatz hartuta.

**Joseba Ariznabarreta > Euskal politikoa eta idazlea**

# "Indar metaketa bat beharrezkoa da eta horrekin batera lider politiko sendo bat"

MIREN ARREGI > ARRASATE

Joseba Ariznabarreta Galdakaon sortu zen 1936an. Euskal Herriaren oso konprometitua betidanik, biliburu eta hainbat artikulu idatzi ditu, -azkena *Pueblo y Poder*, Orreagako taldeak argitaratua- guziak Euskal Herriko gatazkaren gainekoak. Gizon jakintsua, urteen joan etorriek, ziuritasunez eta jakintzaz hornitu dutena, lasaiak, jakintsua eta atsegina, gustu handiz hartu gaitu elkarrikzeta hau egiteko unean.

**Zer da Orreaga? Noiz sortu zen eta zein helbururekin?**

Trantsizioaren ostean sortu zen Orreaga, Galdakaon. Guk ez genuen sinisten trantsizio horretan, uste genuen bide guztiz antzu batetan sartu gintuztela eta beste aukera handirik ez geneukan politikoki indarrik ez genuelako; baina pentsatu genuen gure artean bildu eta egoera aztertzen jarraitzea eta ahal genuen neurriari hori aditzera ematea. Eztabaida gune bat izan da ordutik.


**Arrazonamendu politikoaren berreraikitza, askatasunerako arma bat** izan zen Arrasateko mahainguruaren izenburua. Baina zein izan behar da berreraikitze horren norabidea?

Uste dut politika arloan pentsamendua eta arrazoia oso suntsitua daudela. Beharrezko da horiek berreraikitza, bestela beti ibiliko gara ardi galduen moduan. Imperialismoak lortu duen arrazoia suntsiketa hori konpontzea eta berreraikitza oso garrantzitsua da, eta hori klase politikoaren eginbeharra izan beharko litzateke. Hemen, baina, politikoek ez dute betetzen zeregin hori.

**Euskal Herrian ez duzu uste gizarte talde asko dagoela?**

Euskal Herria herri bat da eta beraz, gizartea bat da; noski, gizarte horren barruan frakzioak egon daitezke. Talde bakoitzak, helburu propioak ditu baina horiek guztiak helburu komun bat ere badute, eta hori da gure askatasuna. Askatasuna euskaldun sentitzen den talde guztien nahia da. Gizartean badira beste talde batzuk baina horiek ez dira euskaldunak, Frantzian edo Espainiaren aldekoak dira, eta beraz, gure arerioak.

**Euskal Herriak munduan bere tokia bilatzeko dituen arazo nagusiak barne ala kanpo arazoak direla esango zenuke?**



Orreaga politikarako iritzi taldeak mahainguru egin zuen egunean Kulturaren. Ariznabarreta izan zen hizlarietako bat.

ARRITXU BARRUSO

Arazo handiena imperialismoa da baina horrekin kontatu behar dugu. Indar metaketa bat lortzea beharrezko da eta horrekin, lider politiko sendo bat lortzea ezinbestekoa. Lider horrek, herri honek dituen indarrak askatu ditu. Eta eurek, politikariek, diseinatu beharko dute estrategia bat indar horiek kudeatzeko. Hori lortuta, ziur askatasuna lortuko dugula.

**Gaur egun lidergo politiko sendo bat lortzea posible ikusten duzu, ala?**

Zaila da, daudenak ez dutelako nahikoa adore erretiratzeko. Eta hori da egin behar dutena, alegia, erretiratu, politikan intentzioak ez duelako ezertarako balio. Arrakasta lortu behar da politikan, intentzioak ez du balio.

**Esango zenuke arazo kultural eta linguistikoak direla arazo sozial eta politikoak sortzen dituztenak?**

Imperialismoaren erruz, gure

**ORREAGA TALDEA**

**"Trantsizioa iruzur bat izan zela pentsatzen genuen batzuen artean sortu genuen Orreaga"**

**ARRAZOIA**

**"Imperialismoak ekarri duen arrazoi eta pentsamenduaren suntsitzea berreraiki behar da"**

**BOTERE IDEOLOGIKOA**

**"Botere ideologikoak herri bati autoestima ematen dio, arerioaren ekintzak gaitzetsi eta gurea baloratzeko"**

hizkuntza eta kultura ez dira Euskal Herrian guztiz hedatu. Hori da landu behar dena. Ez da itxaron behar askatasuna lortu arte maila sozialean, kultur mailan eta hizkuntzari dagokionean lan egiteko. Horrek guztiak, beharrezko du estrategia politiko bat, alor horretan guztiak erabateko arrakasta izateko. Aske ez bagara, galduko dira gure kultura eta hizkuntza, eta ekonomia mailan ere atzera egingo dugu.

**Botere ideologikoaz jardun zenuten eguneko mahainguruau, zer betebehar ditu botere ideologiko horrek?**

Botere ideologikoa oso garrantzitsua da, botereak erakusten duelako herri baten presentzia eta existentzia. Botere ideologikoaren zeregin nagusia da herri bati era-kustea bere irizpide propioz era-baki behar duela zer den ona eta zer ez. Kanpoko irizpideak erabilten baditu, herri hori galdu da. Ideologiak autoestima ematen du, eta arazoaren errua gurea

ez dela ohartzeko bidea; horrela, arerioaren ekintzak gaitzetsi eta gurea baloratzeko. Zapalduta egon eta gainera gure burua errudun sentitzea dagoen okerrena da.

**Botere barik herri bat ez da existitzen?**

Herri bat existitzen da botere duen neurrian. Botere nahikoa ez badauka, herri hori desagertuko da. Botereak emango digu munduan merezi dugun tokia.

**Arrazonamendu politiko hori berreraikitzeko zein baldintza behar ditu herriak?**

Euskal Herrian antzinatik dago ideologia politiko garrantzitsua bat, mundu mailako beste ideologia indartsu batzuekin konparatu daitekeena. Baina hemen isilpean mantendu izan da. Agintean daudenak saiatu dira herriaren dengoko garrantzitsuak diren ideologien sortzaileak isilarazten. Behetik gorako herri mugimendua behar da, eta guztiok dugu erantzukizuna.



## kale inuesta

## Gabonetako janaria erosi duzu dagoeneko ala azkenengo momenturako uzten duzu?



**Maite Olabarria**  
Langilea  
Bergara



**Antoni Gaztañaga**  
Erretiratua  
Bergara



**Maribel Zeziaga**  
Erretiratua  
Bergara



**Miguel Angel Larrañaga**  
Langilea  
Bergara

Ez dut oraindik ezer erosi, hori Gabonak iritsi baino egun batzuk lehenago egiten dut, edota enkargatu ere egiten dugu, agortu ez dadin. Krisiarekin ez dut uste aurtengo Gabonetan ezer igarriko dugunik.

Gaur bertan egin ditut erosketak. Normalean denboraz ibiltzen naiz, gero presaka ibili beharrak izan gabe. Gauza batzuk izozgailuan ongi aguantatzen dute. Halere, azken unean ere erosi behar izaten dira gauzak.

Ez dugu arazorik izaten azken momentuan eroskeko. Suina harakina da eta horregatik, ez dugu aurrez janaria erosten. Krisiak ez du gurean eragin handirik izango, normalean ere ez dugulako ezer berezirik egiten.

Guk ez dugu halako arazorik izaten. Normalean ez dugu erosketarik egin, gonbidatuta joaten gara-eta bazkari zein afaritara. Krisiak eragingo du aurten jakia erostetakoan; hori bai, dagoeña, gustura jango dugu.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

## ARAMAIO

### > Errepide bazterrean paseatu edo korrika egiten dutenei

Arratsaldeko bostetarako iluntzen duen egun hauetan, Aramaio inguruan suertatzen den arrisku baten berri eman digu irakurle batek. Irakurleak dio Aramaiorako errepidetik autoz pasatzen denean jende asko egoten dela errepide bazterrean paseatzen edo korrika egiten. Oso ilun egoten da eta ez omen dute inolako islatzailerik erabiltzen. Hortaz, gidariekin baten bat harrapatzeko arriskua handia dela dio irakurleak.

## BERGARA

### > Sarrerak Kultur Etxean, ez 'Goienkaria'-ko erredakzioan

Joan den astean hainbat musika zale etorri zen erredakzioa Euskadiko Orkestrak egubakoitzean eman zuen kontzertuan sarrerak eskatzen. Kultur Etxea Errotalde jauregian dago, liburutegia dagoen lekuaren; han saltzen ditu Udalak sarrerak.

## ARRASATE

### > Arrasate inguruan, errepideen egoera tamalgarria

Asteon ibarreko errepideen inguruko beste kexa bat jaso dugu erredakzioan. Arrasaten lan egiten duen oñatiar batek Arrasateko saihesbidearen egoera tamalgarria gogorarazi digu. Errepidea zuloz beteta dago, eta horren arriskuaz jabetuta, arazoak konpontzea esku du, ahalik eta azkarren. Saihesbideaz gain Arrasate inguruko errepideen egoera oso txarra dela dio irakurleak.

## usteak uste

Miren Arregi

## Elkartasun hitzak, hitz

Berriz ere Gabonak. Berriz, niretzat behintzat zentzia aspalditik galdu zuten jairik sentituenak, ospatuak. Zentzurik ez dutela diot, baina hori ez da guztiz egia. Nola ez dute zentzurik izango lanaz ahazteko ere bide ematen duten jaiak? Berriz ere, hasiko dira etxeetan; ekarri duzu urdaiazpikoa? Eta patea? Eta non daude iaz erabili genituen mahai tresnak? Eta azpizuna? Eta opariak? Galdera horiek eta halako beste hainbat entzuten ditugu data hauetan. Aurten baina, galdeztuko ote dugu oparien gainean? Eta azpizun, bisigu edo antzekoen gainean? Elkartasun hitza horrenbeste aldiriz errepikatzen den data horietan, krisiak lagunduko ote dugu ohartzentzako elkartasun hitzak ez duela ezertarako balio urtean horren alde ezer egiten ez bada?

## zorroztalea



Markos Balentziaga

## Urkamendixa

"Baionako unibertsitatearen egoitza berriaren inaugurazioa ez da agintarien nahiko zuketen gisara egin. Ikerlek protesta egin baitute, Frantziako Gobernuak hezkuntzan egin nahi dituen erreformen kontra. Xingola urdin, zuri eta gorria mozteko unean, egoitza berriko atarian bildutako agintariei arrautzak ere jarti zizkieten"

Berria > 2008-12-13



Joandako azken bi asteetan alderdi bateko eta besteko politiko-jendiak aho-bero eta buru-beruago jardun daujesunak eta bi esaten. Zapatuko *Berriak* lehen-lehen orriean, erretretu eta guzti, Baionako alkate txit gorena bezain zerdena dan Grenet jauna erakusten zeban estudiante-kuadrilla bat demandan, bietzakin kiñu zatar samarra egiten zebala be pensu eragitteko moduan. Estudiante manifestantiak arrautzak botata zotsen agintarixeitik eta erretretatuko Grenetek ez zeban emoten "ave-maria-purisima"-ka ziharduanik.

Baña politiko aho-bero eta kaxkarien artian, azkena -ez bakarra- Fraga izan da, Manolo Fraga. "Nazionalisten pisua neurtu biharra dago, txintxiliz ipinitta" bota zeban. Gero etorreri dira betiko gozagarri, leungarri eta karamelo-kontuak.

Frage txintxua balitz eta berbako politikua, etxetik hasi biharko leuke lanian... PPTik, jakiña, -ez dago espainolistarik, PPn; partidu popularra ez da espainolista!- eta lana osatzeko soka faltan izango litzake!

Fragaren bizitza politiko luzian esan eta egin bihar ez zittuanen sorka luze samarra be bida. Francoren informazio ministrua zan Julian Grimau fusilatu zebenian 1963an, esaterako.

Esandakuak gordiñak dirala eta kargua laga? Horixe eskatzen dotse aho-beruei politikan aurrez aurre dauzkenak. Ez horixe! Fragak izan dau hamaika aukera, behinguan, alde egin eta ezkutatzeko; ez da joango, baña.

Aginpidia, gutxi-asko, eskura edota gertu samar izatia hain itsugarrixa da? Horrek iluntzen dotse burua Fragari eta beste askori?

Afrikako ez dakit zer aldetako esaeria ei da honako hau: berba egokixa urezurixa da baña isiltzen jakittia, uregorrixa.

Alperrik esango dotse Afrika osuak diarka baten; ez dira enterauko.

**"Politiko aho-bero eta kaxkarien artian azkena Fraga izan da"**

**"Fraga txintxua balitz eta berbako politikua, etxetik hasi biharko leuke lanian..."**

## Goienkaria

Argiratzalea Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Edu Mendibil Erredakzioa Jokin Bereziartua, Arantzazu Ezkibel, Miri Arregi Oinarritzko diseinua Goi Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzaran

EGOIZTA NAGUSIA  
BERGERA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK  
ARRASATE 20500 Otañor Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durango 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0084/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria**

# Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13  
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



## > ARRASATE

Santamas komisiñuek elkarlanerako hitzarmena sinatu du Udalarekin eta kultur taldeekin > 10



## > OÑATI

Aloña Mendi mendi saileko V. mendi eta natura argazki lehiaketak baditu irabazleak > 12



## > ANTZUOLA

Argiteria konpondu eta hezetasunaren kontrako tratamendua eman dute pilotalekuau > 14

HITZALDI ZIKLOA > PEDRO BITERI OMENTZEKO HITZALDI ZIKLOA

# Biteri goraipatuko du berriz Udalak, haren heriotzaren 100. urteurrenean

## URTEURRENA

Pedro Biteri hil zela 100 urte, eta jaio zela 175 urte bete dira

## HITZALDI ZIKLOA

Udalak hura gogoan, hitzaldi zikloa antolatu du aste honetarako

## EKARPENAK

Biterik Arrasateko herriari egindako ekarpenak hizpide

## MIREN ARREGI > ARRASATE

Pedro Biteri filantropoa hil zela 100 urte betetzen dira aurten; urteurren horrekin batera, gainera, haren jaiotzaren 175. urteurrena ere bada aurten. Urtean zehar haren irudiari gorazarre egiteko eta Biteri gogora ekartzeko hainbat ekitaldi egin dituzte, eta asteon ere, Arrasateko Udalak, Pedro Biteri gogora ekartzeko hitzaldi zikloa antolatu du. Hala, Kulturako areto nagusia, Biteri gorai-



Biteri eskoletako umeak.

GOIENKARIA

patzeko gune bilakatuko da; hiru hitzaldi izango dira guztira, eta horietan, Pedro Biterik Arrasateko herriari egindako ekarpenea aztertuko da ikuspegi askotatik; arkitektura, hezkuntza eta kal-kulu mentala izango dira hizlariak jorratuko dituzten gaiak.

## HITZALDIAK, 19:00ETAN

Arratsaldeko zazpietan izango dira hitzaldiak, kulturateko areto nagusian.

Bihar, hilak 16, Ana Isabel Ugalde, Artearen Historian lizenziatuak, *Don Pedro de Viteri y la modernización de Mondragón* izen-

burupean hitzaldia egingo du. Euskal Herriko Unibertsitateko letron fakultateko eta Arizmendiako irakaslea da Ugalde, eta hiru zatitan egituratuko du hitzaldia: "lehen zatian, Pedro Biteriren biografia azalduko dut, eta datu berriak ere emango ditut gaine-

ra, ikertzen aritu naiz eta pasarela berriak aurkitu ditut", dio Ugalde. Bigarren zatian, Biteri eskolek Arrasateri egindako ekarpena izango du hizpide eta hirugarrenean, Biterik munduan barrena ikusi eta Arrasatera ekarritako beste modernitate batzuk azalduko ditut Arrasateko Biteri eskola (1902), irakaskuntzarako propio egindako lehen eraikina izan zen, zeregin horretarako atondua izan zen lehen eraikina, alegia.

Etzi, ordu berean, Juan Ramon Garai historialariak, *Teresa Garcia eta Felix Arano, maisu maistra ezin hobea* hitzaldia eskainiko du. Haren jarduna, Biteri eskoletako irakasleen gainekoa izango da. "Maisu maistra aurrerakoia ziren, naturarekin konprometitak; esango nuke oraingo ekologistak zirela. Ikasketa metodo berri eta aurrerakoia ere erabili zitzuten, besteak beste, zigorraren ordez, parte-hartzea bultzatzen zuten", dio Juan Ramon Garaik.

Eguenean, Alberto Coto asturiarraren abileziaz txundituta gelditzeko aukera egongo da. Coto, munduko txapelduna da kalkulu mentalean. Biteri eskoletan, etorkizunean lanerako baliagarriak ziren hainbat ikasgai irakasten ziren eta horien artean zegoen kalkulu mentala.

## Familiarengandik jasotako ondarea bideratu zuen Ian filantropikoetara Pedro Biterik

1908ko maiatzaren 21ean hil zen Pedro Biteri, XX. mende hasierako Gipuzkoako herri hezkuntzaren sustatzaile nagusia. Gizon intelektuala izan zen, ikasketak Baoian ez ezik, Britainia Handian ere burutu zituen. Europa mailan hainbat hiritan bizi izan zen, nahiz eta urte gehienak Parisen egin zituen. Haren gurasoak hura gazte zela hil ziren eta haren anaia nagusia jaso zuen familiarengandik ondarea. Anaia hura, baina, Pedro Biterik 60 urte zituela hil zen eta ondorioz, bera egin zen ondare horren guztiaren jabe bakarra. Celina Woody emazte ingelesarekin batera, Biarritzera joan zen bizitzera orduan, eta urte hartan bertan, Arrasate bisitatu zuen, Biteri jaio zen herria, baina urte luzetan ikusi ez zuena.

Hezkuntzak garai hartan zituen gabezia eta beharrei erantzunez, 1902an Arrasaten sortu zuen Biteri eskolaren ondoren beste hainbat escola sortu zituen Gipuzkoako hainbat herritan, horien artean Aretxabaletan. Eskola horiek bere poltsikoko diruz ordaindu zituen eta azpiegituraz hornitut eta atondut zituen. Lehenengoz, desamortizatutako eraikinak ez, hezkuntzara propio zuzendutako escola sortu zuen Arrasaten. Orduko 775.000 pezeta inguru bideratu zituen betebehar horietara. 1908ko maiatzean zendu zen.



Arrasateko Pedro Biteri escola, 1902. urtean sortua.

GOIENKARIA

**OSPAKIZUNAK** > HITZARMENA SINATU DUTE KOMISIÑUEK, UDALAK ETA KULTURA TALDEEK

# Jaien eredua lotzea lortu du Santamas Komisiñuek

Eguenean, babes zabalarekin onartu zuten osokoan Santamas jaiak eta Ouentzero eguna elkarrekin antolatzeko hitzarmena

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE  
Udalbatzaren babes zabalarekin -PSE-EEk soilik bozkatu du aurka - Santamas Komisiñuek elkarlanerako funtzi eta betebeharrak zehaztuko dituen hitzarmena egitea lortu du. Joan den eguneko osokoan onartu zuten lau urterako akordioa. 30 urte baino gehiagotan jaiak aurrera egin badu ere, paperean zehazteke zeuden antolatzairen ezberdin funtzi eta betebeharrak. Hain zuzen, osokoan bertan, hitzarmenaren puntua aztertzeraoa Komisiñoko kide batek hartu zuen hitza hori azaltzeko. Nagore Iraolak agertu moduan, "jaien eredua egonkortzea" lortzen da hitzarmenarekin eta azpimarra-



Martitzenean aurkeztu zuten antolatzaileek egitaraua eta kartela.

J. B.

tu zuen hitzarmen anitza dela Udalak, batzordeak berak eta Arrasateko hamar kultura taldekin adostuta dagoelako.

#### JAI EREDU "HERRIKOIA"

Hain zuzen, PSE-EEko udal taldearen hitzarmenaren aurka bozkatzen erabilitako arrazoia izan zen hori. Sozialistek azaldutu zuten "profil politikoa" daukala Komisiñak eta ez zuten ikusten zer tan "Udalak jai antolakuntzara

ko arloa izanda, antolakuntza beste batzorde baten esku ere egotea". Hala ere, iritzi horren kontra Udal Gobernuak egin zuen berba. Izadi Mondragon zinegotziak hitza hartuta, azaldu zuen "Udalak jaien arduradun bat izanda ere herriarren partaidetza garrantzitsua dela jai herrikoiak antolatzeko aldera". Gauzak horrela, lau urtetarako hitzarmena sinatu dute Komisiñuek, Udalak eta kultura taldeek.

**GARAGARTZA** > ORTU EKOLOGIKOAK

## Herritar guztiekin izango dute 87 ortuetarako aukera

Bidea eman dio Udalak erabilpena zehaztuko dituen erregelamenduari

J.B. > ARRASATE

Harrera beroa izan du egitasmoak hasieratik eta aukera egon denetik 160 bat lagunek eman dute izena Garagartzan partzela bat eskuratzeko. Bere garaian adin eta mota guztiako herriarrek eman zuen izena eta eguneko osokoan onartu zuten da erabilpena arautuko duen erregelamendua. Orubean 87 partzela edo ortu egongo dira, 50 metro koadr ingurukoak. Zurezko etxolatxo bat egongo da, onuradun guztiendako erabilgarri biltegi,

aldagela, kutxa, bulego eta komunekin. Aleak gordetzeko biltegiak eta hormigoizko askak ere egongo dira, besteak beste.

#### NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

Erabilera pribatukoak izango dira betiere, baina jabetza Udalarena izango da. Hala, Arrasateko edozein herritar izan daiteke onuraduna eta gehienez ere 20 urterako erabili ahalko du erabiltaile bakoitzak egokitutako ortua. Hori bai, ortu bat eskuratzeko, interesa duenak frogatu egin beharko du nekazaritza ekologikoaren jardunbideak ezagutzen dituela eta, horretarako, Udalak antolatuko duen ikastaro baten harria beharko du parte. Kuotei dagokionez, hilabeteko edo hiruhilabeteko ordainketa ezarnekotan da Udala.

> ALE BEREZIA

## Santamas jaietako eta Gabonetako gehigarri berezia banatuko du 'Goienkaria'-k bihar

Bihar, hilak 16, Arrasaten banatuko da *Arrasate Gabonak* gehigarria. Ale potoloa izango da, 40 orrikoa, hain zuzen ere. Denetariko edukiak egongo dira bihar etxe banatuko den ale berezian: Santamasetako azokaren gaineko ekitaldiak jasoko dira bertan, eta baita ere, abenduko kultura ekintzen informazioa. Ouentzero eta Gabonetako programazioa jorratuko dute baita.



# ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.  
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!

**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**



A+ Sailkapen energetikoa  
**GARBIGAILUA F-2810**  
**325 €** FAGOR



A+ Sailkapen energetikoa  
**GARBIGAILUA 3F-1610**  
**230 €** FAGOR



A+ Sailkapen energetikoa  
**GARBIGAILUA ALF-1127**  
**280 €** aspes



A+ Sailkapen energetikoa  
**ONTZI-GARBIGAILUA 2LF-013S**  
**300 €** FAGOR



**Fagor Eko-igorle elektrikoak**

BERO URDINA, IZUGARRIZKO AURREZKIA	
ED	E
(610x1.060x95) mm	370 €
(610x910x95) mm	330 €
(610x760x95) mm	295 €
(610x610x95) mm	255 €
(610x460x95) mm	215 €
ED: Elektroniko digitala E: Elektroniko, eskuzkoa	195 €



A+ Sailkapen energetikoa  
**HOZKAILUA 3FC-67NFXD**  
**570 €** FAGOR



A+ Sailkapen energetikoa  
**HOZKAILUA AFC-185**  
**320 €** aspes



A+ Sailkapen energetikoa  
**HOZKAILUA AFD-144**  
**205 €** aspes



**Panasonic**  
**TX-42 PX8 725 €**  
**TX-37 PX8 665 €**  
**TX-32 LED 525 €**

#### RENOVE PLANA

**GARBIGAILUAk**

**ONTZI-GARBIGAILUAk**

**HOZKAILUA**

**IZOZKAILUA**

**A -85 €**

**A+ -105 €**

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.



**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperativistendako prezio bereziak.**

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.



Beste urte batzutan eskola barruan egin dute material biltzen. ARANZADI IKASTOLA

ELKARTASUNA > ARANZADI IKASTOLAREN EKIMENA

## Argentinako umeendako jostailu eta oinetakoak

Abenduaren 20an, goizez, San Martin plazan egongo dira ikastolakoak materiala jasotzen

JASONE ZABALA > BERGARA

Duela lau urte hasi ziren Aranzadi Ikastolakoak elkartasun lan horrekin. Hasiera baten ikastolako artean egiten zen material biltzen. Batutakoa Oñatira eramango dute; bertan, Argentinako herri horrekin lan egiten duen talde bat dago, eta beraiek arduratuko dira jasotako oinetako eta jostailu guztia Argentinara bidaltzeaz. "Ikasleendako esfortzu bat izatea nahi dugu, eta ez soberan daukatena ekartzea, benetan importa zaiena izan dadila", amaitu du Barruso Aranzadiko zuzendaria.

ELKARTASUN KEINUA

Ikastolako zuzendari Ane Barrusok adierazi digu: "Herrian beste inork ez du egiten halako bilketarik, eta beharrezkoak ikusen dugu halako elkartasun keinu bat egitea eta herritar guztiek parte hartzea". Datorren abenduaren

20an goizez egongo dira herriko plazan, Argentinako Jose C. Paz herriko jendearendako jostailuak eta haurren dako oinetakoak biltzen. Batutakoa Oñatira eramango dute; bertan, Argentinako herri horrekin lan egiten duen talde bat dago, eta beraiek arduratuko dira jasotako oinetako eta jostailu guztia Argentinara bidaltzeaz. "Ikasleendako esfortzu bat izatea nahi dugu, eta ez soberan daukatena ekartzea, benetan importa zaiena izan dadila", amaitu du Barruso Aranzadiko zuzendaria.

> UDAL IKASTAROAK  
**Datorren hilabeteetarako ikastaro berri bi**

Bergarako Udalak urtarrila, otsaila eta martxorako ikastaro berri bi eskainiko ditu: Ptachwork (josteko estilo bat) eta antzerki tailerra.

Antzerki tailerrari dago-kionez eguzten guztietan izango da 18:30etik 20:30era; irakasle Taun-taun txotxongilo taldea arituko da. Bigarren ikastaroa, patchwork, josteko estilo berri bat da. Martitzetenetan izango da ikastaroa eta hori ere bi orduz izango da: 18:30etik 20:30era. Irakaslea, Anezka akademiko Olga izango da. Izena eman nahi duenak kultura etxera hurbildu behar du abenduaren 19a baino lehen. Bergarakoek 15 euro ordaindu beharko dute hilean, besteek 20.

> ALDIZKARIA  
**Hemendik aurrera ikastetxeen bidez banatuko da 'Apatxi'**

Azken urteetan *Goienkaria*-rekin batera banatu izan da *Apatxi*, 3 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoendako aldizkaritxo; baina hemendik aurrera ikastetxeetan banatuko da zuzenean. 2008-09 ikasturtean hiru ale banatuko dituzte-lehenengo dagoeneko banatu da-. Etxeko nagusiak – guraso, anai-arreba eta abarrak – ere umearekin batera gaia lantzen ariatzeko eta sariketan parte hartzeko modua bideratu nahi izan da.

Bergarako Udalak, herriko ikastetxeen eta Jardun euskara elkartarekin elkarlanean, azken urteetan lantzen diharduen *Gehixago eta hobeto* programaren barruan kokatzen da *Apatxi* aldizkaritxo.



MONIKA BELASTEGI

## Udaleko gutunak bizikletaz banatuko dituzte aurrerantzean

Udalak lau bizikleta erosio ditu Ingurumen batzordearen ekimenet, eta helburua da Udaleko langileen artean auto zein motorraren erabilera murriztea. Bereziki Udaleko gutun eta oharak banatzen jarduten duten bi langileendako erosio dituzte bizikletok. Ingurumen batzordetik jakinarazi dutenez, "langileokin kontsultatu eta ideia ona iruditu zitzaien. Dena den, beharra izan dezakeen beste edozein langilek ere erabil ditzake". Irudian Pili Gartzia eta Roberto Izagirre udal langileak bizikleta berriein.

INFORMATIKA > IKASTAROAK

## KZguneak urtarrilerako hainbat ikastaro antolatu ditu Internet erabiltzen ikasteko

Ikastaro kopuru eta ordutegi zabala eskainiko dute urtarrilean zehar edozeinendako egokituta

KZguneko Internet ikastaroa; sinadura elektronikoa; kontsumitzailea sarean; Eustat; *Justizia ezagutu ezazu; Guia Michelin*kin bidaiatu; posta elektronikoa eta bapateko mezularitza.

### ORDUTEGI ETA EGUNAK

Ordutegiak eta egunak ezberdinak izango dira eta aukera izango dituzte erabiltzaileek. Informazio gehiago nahi duenak hiru bide ditu: alde batetik telefonoa: 943 76 73 24; bestetik *tutor.bergara@kzgunea.net* helbide elektronikora bidalita mezua; eta azken aukera, Bergarako Irizar jauregiaren ikastaroak:

giko bigarren solairura zuzentea astelehenetik egubakoitzea 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara bitartean.

### AUKERA ZABALA

KZgunea sareak teknologia berriei buruzko doako zerbitzuen eta ikastaroen katalogo zabala eskaintzen dizu. Internet erabiltzen ikasteko eta nabigatzeko behar diren instalazio egokiz hornituta dago Bergarako KZgunea. Hurbilen duzun zentroa aukeratu dezakezu eta gehien interesatzen zaizun ikastaroa eskatu dezakezu.

Hurrera zaitez itsasora

## ITXASJAI

akademia nautikoarekin

### Kirol-tituluak

Asialdi-itsasontziak gidatzeko, kurtso teoriko praktikoak eskaintzen ditugu beharrezkoak diren kirol-tituluak lortzeko.

### TITULUAK:

Nabigazio-patroi titula, oinarrizko.

- 7,5 metro-motordunak
- 8 metro-belaontziak
- Kostaldetik 5 miliaraino

### Asialdi-itsasontziako patroia.

- 12 metro-motordunak eta belaontziak kostaldetik 12 miliaraino

### Yate patroia.

- 20 metro kostaldetik 60 miliaraino.



ITXASJAI

Sokagin kalea 7 | Deba | 678 51 72 57 | www.itxasjai.com

ARGAZKIGINTZA &gt; V. MENDIA ETA NATURA LEHIAKETA

# 'Bortxazko tatuaiak II' eta 'Mozoloa', Aloña Mendiren argazki lehiaketako irabazoleak

Jose Maria Llavorik eta Iñaki Idigorasek jasoko dituzte mendia eta natura eta denuntzia ataleko lehen sariak

**MIREIA BIKUÑA > OÑATI**  
Aloña Mendi elkarteko mendi saileko V. mendi eta natura argazki lehiaketak baditu irabazoleak. Zumaiako Jose Maria Llavoriren *Mozoloa* delako argazkiak irabazi du mendia eta natura ataleko lehen saria, eta Iñaki Idigoraren oñatiarraren *Bortxazko tatuaiak II* izeneko argazkiak denuntzia ataleko lehen saria.

Abenduaren 3an bildu ziren epaimahaiko kide Jose Agustin Gurrutxaga, Benito Cantero eta Josu Garai argazkilariak, eta atal bakoitzeko hiru irabazoleak aukeratu zituzten. Mendi eta natura atalean bigarren saria Bergarako Ricardo Gartziaaren *Mitxoleta* izeneko argazkiak irabazi du, eta hirugarren saria Berangoko Javier Pedro Fernándezen *Gatxe* izeneko argazkiak. Bestalde, atal honetan herriko argazkilarien arteko argazki onenaren saria Iñaki Idigorasek eroan du 7.a deritzeron argazkiarekin.

Denuntzia edo salaketa ataleko bigarren saria Andoni Campos oñatiarraren *Zugspitzeargaz-*

kiak eroan du, eta hirugarrena Legazpiko Jose Benegasen *Bicicleta* izeneko lanak. Ernesto Agirre oñatiarraren *Zuhaitzaren hilketan* delako argazkiak jasoko du atal honetako herriko argazki onenaren saria. Azkenik, alpinismoko argazki onena Bergarako Joseba Leturiak irabazi du *Freide* izeneko argazkiarekin.

Sari banaketa ekitaldia egubakoitzean egingo dute Kultura Etxeko erakusketa gelan, 19:00etan.

Aloña Mendi elkarteko mendi saileko kideak gustura daude lehiaketak izan duen erantzunarekin: "Guztira, 147 argazki jaso ditugu: 105 mendia eta natura atalerako, eta 42 denuntzia atalerako. Argazki batzuk maila onekoak dira, eta beste batzuk erdi mailakoak. Dena den, gustura gaude erantzunarekin, urtez urte kopurua mantentzea lortu dugu-eta".

## ERAKUSKETA EGINGO DUTE

Sari banaketa ekitaldia bukatu ondoren, lehiaketara aurkezta diren argazki batzuekin osatutako erakusketa zabalduko dute, urtarriaren 3ra arte. "Guztiak ez ditugu jarriko, asko dira-eta. Saria jaso dutenak eta argazki onenak zintzilikatuko ditugu", esan digute mendi taldekoek. Erakusketa 18:00etatik 20:00etara zabalduko dute egunero.



Mozoloa argazkiak irabazi du lehen sarietako bat.

JOSE MARIA LLAVORI

## Mendi federatu txartelak berritzeko epea

Urtero lez, datorren urterako mendi federatu txarteletan aldaketak egiteko egunak zehaztu ditu mendi taldeak; hain zuzen ere, eguztenean, egunean eta egubakoitzean egongo dira Aloña Mendiko egoitzan, 19:00etatik 21:00etara. Aldez aurrerik baja emateko abisua ematen ez duten guztiei automatikoki berrituko diente federatu txartela.

Aloña Mendiren bitartez mendian federatzen diren guztiak mendi taldeko bazkide izango dira. Dena den, mendian federatu barik bazkide ere izan daitzeke. Mendi saileko bazkideek kirodegiko boulder eta rokodromora sartzeko eskubidea izango dute, eta mendi taldeak antolatzentzituen ekintza eta irteeratan parte hartu ahalko dute. Bestalde, mendi taldeak duen materiala doan alokatzeko aukera dute bazkideek.

AZPIEGITURAK &gt; ARGIZTATZEA

## Zañartuko argiztatzea datorren urterako bukatu gura dute

Aldundiak baimena ematen duenean hasiko dituzte argiztatze lanak

M.B. &gt; OÑATI

Zañartu auzoko argiteria berriko lanak laster hasiko dituzte. Lourdes Idoiaga alkateak esandakoaren arabera, Foru Aldundiaren Errepide Zuzendaritzaren baimenaren zain daude lanak hasteko: "Zuazola Zubiketik Etxe Aundi jatetxe arteko bidea Aldundiarena da, eta zutikako argontziak jartzeko euren baimena behar dugu. Laster jasotzea espero dugu; hortaz, argiztatzea jartzeko lanak, datorren urtean bukatuko ditugu".

Kanposantutik Zuazolako Zubiraino doan errepidea Udalaren jabetzakoa da.

## LANAK HIRU FASETAN

Udal arduradunek prest dute Zañartu eta Garagaltza arteko errepidean egin beharreko lanak zehazten duen proiektua. Miguel Angel Nuñez ingeniariek egindako txostenaren arabera, lanak hiru fasetan egingo dituzte: lehenengo fasean, Etxe Aundi jatetxetik Mugartza baserriraino Iberdrolak dituen zutabeak aprobatu dituzte; bigarren fasean, Mugartzatik Zuazola Zubiraino argiteria jarriko dute; eta hirugarrenean, Zuazolatik kanposanturainokoa. Guztira, 159.332 euro gastatuko ditu Udalak argiteria ipintzeko.



Herritar asko ibiltzen da Zañartuko bidean.

> SALMENTA  
**Amaia Zubiriaren kontzerturako sarrerak, salgai**

Amaia Zubiriak abenduaren 20an egingo duen kontzerturako sarrerak salgai daude dagoeneko Kultura Etxeko sarreran zortzi euroren truke. Hain zuzen ere, astelehenetik egubakoitzera 16:30etik 20:30era salduko dituzte, eta zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara. Era berean, kontzertu egunean txarteldegean salduko dituzte hamar eurotan. Amaia Zubiria bakarra grabatu berri duen *Nabil* diskoaren aurkezpen kontzertua egingo du abenduaren 20an, Santa Ana antzokian, 19:30ean.

> ZINEMA  
**'Rainbow's end' dokumentala Gehitu taldearen eskutik**

Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Elkarteak (Gehitu) antolatuta *Rainbow's end* delako dokumentala emango dute egunean kultura etxeko zinema-aretoan, 18:00etan.

Jochen Hick-ek eta Christian Jentsch-ek zuzendutako dokumentalaren ondoren, hitzaldia egingo dute. Hain zuzen ere, Europa mailan orientazio sexualagatik jasdako bazterketen inguruan egingo dute berba.

> DEIALDIA  
**Misio taldeak afari solidarioa egingo dute barikuaren Bidaurretan**

Urtea bukatu aurretik berriro biltzea erabaki dute Parrokkiko Misio Taldekoek. Egubakoitzean urteko hirugarren eta azken afari solidarioa egingo dute Bidaurreta fraideen lokalean, 20:30ean. Betiko moduan entsalada eta patata tortilla afalduko dute. Ondoren, hitzaldia egingo du Misio Taldeko kide Alazne Guridiak. Hain justu ere, udan Mozambiken bizitako esperientziaren nondik norakoak kontatuko ditu.

> EKITALDIAK  
**Kultura astea egingo dute Zuazola institutuan gaurtik**

Zuazola-Larrañan institutuan III. kultura astea egingo dute gaurtik hilaren 23ra arte. Besteak beste, ipuin kontaketa, euskal kantuei buruzko ikusentzunezkoe eta, ingelesezko antzerkia iragarri dituzte. Gainera, egunean, bandoleismoari buruzo hitzaldia egingo dute 11:30ean, eta Pou anaien ikus-entzunezkoe eskaniko dute 15:30ean.



Herriko akordeoilariek lan ona egin dute aurtengo Arrasateko akordeoi txapelketan.

MIRARI ALTUBE

ARETXABAleta > AKORDEOI TXAPELKETA

# Herriko akordeoilariaiak ederto ibili dira aurten ere Arrasaten

Edizio honetan sei neska-mutikok parte hartu dute txapelketan: bost aretxabaletar eta oñatiar bat

Lehiaketan, senior mailan, 18 urte dituen Unai Mendikutek laugarren postua eskuratu du

**MIRIAN BITERI** > ARETXABAleta  
Azken urteotan ohikoa den moduan, hil hasieran Arrasaten izandako akordeoi txapelketan parte hartu dute herriko akordeoilariek. Guztira, zazpi eta hamazortzi urte bitarteko sei neska-mutikoi izan dira han. Gipuzkoako

29. Lehiaketan, baina, bakarra aritu da, senior mailan: Unai Mendikute. Erakustaldi bikainenaren ondoren, laugarren postua eskuratu du. Aurrekik infantiletan eta junior mailan txapelduna izatea lortu du 18 urteko aretxabaletarrak.

## BOST DOMINA

Gainontzeko bost akordeoilariek Gipuzkoako 21. jaialdian parte hartu dute. Hastapenetan hamar urtetik beherakoek jardun dute. Horretan zazpi urte baino ez dituzten Igor eta Mireia Madinabeitia aretxabaletarrak urrezko eta zilarrezko domina, hurrenez hurren, eskuratu dute.

Hamabi urtetik beherakoenean artean, zortzi urteko Iker Mendikutek urrezko domina lortu du; hamalau urte baino gutxiagokoetan, berriz, Izar Biainek zilarrezko eta Nerea Gaztañagak brontzezko eraman dute etxera.

Biain oñatiarra da baina Juanjo Orobengoa du akordeoi irakaslea. Gainontzeko biak herrikoak dira. Orobengoa eta txapelketan izan diren akordeoilariaiak pozik daude lortutako emaitzakin. Iker Mendikutea ilusio handiz prestatzeko animua ematen diela diote.

## GABONETAKO KONTZERTUA

Akordeoilari horiek zapatuan, hilak 20, zuzenean entzuteko aukera izango dute herriarrek, Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak parrokian emango duen Gabonetako kontzertuan. Emataldia 20:30ean hasiko da.

ESKORIATZA > UMEAk

# Maite Franko ipuin kontalaria dago liburutegian egunean

**M.B.** > ESKORIATZA  
Eguenean, hilak 18, lau eta zortzi urte arteko umeendako ipuin kontaketa egongo da udal liburutegian, 18:00etan. Maite Frankok kontatuko dizkie hiru edo lau ipuin. Ekimen hori debalde da.

Frankok jakinarazi du ipuin bakoitzak, gehienez, 10-15 minutuko iraupena duela. Ipuin horiek interaktiboak izaten saiatzen dela ere azaldu du: "Haurren parte

hartzeak bereziko garrantzia du, izan ere, asmakizunak, galderak, antzerki txikiak eta jolasak tartekatzen ditut saio osoan zehar".

## UME AKTIBOAK

Horren harira, Maite Franko pozik dago ume eskoriatzarren jarreararekin: "Oso aktiboak dira neska-mutikoak eta ongi oihitura daude kontaketa arauak-eta errespetatzerakoan".



Maite Franko ipuinak kontatuko dizkie egunean haurrei.

GOIENKARIA

> ARETXABAleta  
**Parrokiako Espetxe Pastoraltza kanpaina egiten dabil**

Urtero bezala, Aretxabaletako parrokiako Espetxe Pastoraltzak Gabonetako kanpaina jarri du abian Martuteneko espetxera bidaltzeko. Eguaztenean, hilak 17, amaituko da bilketa. Honako produktuak utzi daitezke sakristian: barruko arropa berria, galtzerdiak, Telefonicaren PINik gabeko telefono txartela, hortzetaiko pasta eta hortz-eskulak, kartazalak, desodorante barra, pilak eta turroi biguna, besteak beste.

> ARETXABAleta  
**Gabonetako kontzertuak daude asteon Arkupen**

Asteon Aretxabaletako Leizarra musika eskolako kontzertuak daude. Gaur eta bihar, asteleheneta eta martitzena, Gabonetako ohiko kontzertua eskainiko dute Arkupeko Zaraia aretoan, 18:00etan.

Eguaztenean, abenduak 17, berriz, haur hezkuntzako neskato-mutikoek kontzertua eskainiko dute toki eta ordu berean: Zaraia aretoan, 18:00etan. Dantzak ere egongo dira ekimen horretan.

> ESKORIATZA  
**Masaje bateratuaren ikastaroan izena eman daiteke oraindik**

Zapatura arte, hilak 20, dago masaje bateratuaren gainezko hasierako ikastaroan izena emateko epea, kultura etxeen. Horren helburua da mendebaldeko masajea (lasaigarria eta kiromasa-jea) eta ekialdekoa (digitopuntura eta yoga pasiboa) bateratzea.

Eskolak urtarrilaren 15ean hasiko dira eta apirilaren 3ra arte luzatuko dira. Eguen arratsaldetan izango dira kultura etxeen. Ikastaroak 40 euro balio du.





Paretak berdez margotu dituzte eta marrak urdinez; egunen baten telebistaz partiduak emateko moduan gertatuta dago. I.A.

ANTZUOLA > UDAL PILOTALEKUA

## Paretak berdez margotu ostean zabalik da frontoia

Hezetasunaren aurkako tratamendu berezia egin  
dute hormetan eta argiteria ere konpondu dute

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA**  
Egubakoitzean zabaldu zuten Udal Pilotalekua konponketa eta margotze lanen ostean. Olaldeko pilotarieki azpeitiarrak izan zituzten aurrez aurre estreinako partiduan. Horrela, Oñatiako Zubikoa pilotalekua utzi eta hemendik aurrera Antzuolan jokatuko dute berriz.

Pilotarieki eta zaleek frontoian aurkituko duten berrikuntzarik nabarmenena da pilotalekuko hormen kolorea, berdea, hain zuzen ere. Falta gunea, berriz, urdinez margotu dituzte.

Kolorea bistakoa bada ere, beste hainbat konponketa ere egin dituzte frontoia itxita egon den bitartean. Zenbakiek aldatu egin dituzte eta paretak zarpia tu egin dituzte material gogorragoa erabiliz; hainbat tokitan pikatu ere egin dute kresala kentzeko. Horretaz gain, hodi berria ere ipini dute, baita babeserako material berria erabili ura barrura pasatzea saihesteko. Horrela, konponketa horien guztien ondoren, hormek itxura berritua eman diote pilotalekuari. Argiteria ere konpondu dute.

Berritze lanek 30.000 euro inguko kostua izan dute. Harma rria aldatzea eta Antzuolako Uda la errrotuloa ipintzea ere bazegoen asmoen artean, baina hezetasunarengatik orain ezin izan dute ipini eta udaberriko arte atzera tuko dituzte lan horiek.

**ERRETSERBA UDALETXEA**  
Olalde pilotak elkartekoek marti tzenetan eta eguenetan erabilten dute frontoia batik bat entre namenduetarako; baita parti duak dituzten egunetan ere. Gainontzeko pilotak zaleek 18:00etatik aurrera beste egune tan pilotalekua erabiltzeko aukera dute, baina erretserba egiteko udaletxera jo behar dute.

ELGETA > 'ELGETA DANON ARTIAN' EKIMENA

## Udalak hilaren 22ra arte luzatu du 'Elgeta Danon Artian' inkesta betetzeko epea

68 galdera jasotzen  
dituen inkesta  
betetzeko hamar  
minutu hartzeko  
eskatzen die Udalak  
herritarrei

**LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA**  
Iritsi dira pixkanaka herritarrek  
betetzeko inkestak udaletxera.  
Agintariek, ordea, erantzunak  
aurkezteko epea astebetez luza  
tzeko erabakia hartu dute ahalik  
eta herritar kopuru handiagoaren  
iritzia jasotzeko.

### AZKEN EPEA, HILAK 22

Udalak mahai gainean dituen hainbat gairen inguruan herri tarren iritziak jaso nahi ditu inkesta horren bitartez. 68 galderak osatzen dute eta askotariko gaiak planteatzen dira bertan. Erretiratuen egoitza non kokatu behar den, aparkaleku gehiago behar diren, oinezkoendako kale etan ibilgailuen joan-etorriak arautu behar diren, zaborren kudeaketa egokia den, aisiaaldi rako gune gehiagoren beharra dagoen, garraio zerbitzua ego kia den, etxebizitza gehiagoren beharra dagoen, txabolen gaine ko arautegia zorrotz aplikatu behar den, komertzioa bultzatu

behar den, uraren saneamendua ona den, herrian wi-fi ipintzea egokia den...

**ERANTZUNAK UDALETXERA**  
Etxez etxe inkesta bananatu du Udalak. Gehiago behar izanez gero udaletxera jo behar dute interesatuek eta bertan eskatu. Gainera, [www.elgeta.org](http://www.elgeta.org) webgu netik ere jaitsi daiteke. Galdeketa bete ostean erantzunak udaletxera eramateko eskatu dute. Sarreran postontzia ipini dute eta bertan laga behar da betetako inkesta. Zalantzaren bat izanez gero, herritarrek era bilgarri dute [danonartian@elgeta.org](mailto:danonartian@elgeta.org) e-posta.

ARAMAIO > TOKIKO AGENDA 21

## Tokiko Agenda 21en nondik-norakoak azaltzeko hitzaldia

Arabako Diputazioak Tokiko Agenda 21 sustatu nahi du Arabako udalerrietan; Diputazioko bi teknikari Aramaion izan ziren egunean

**ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO**

Tokiko Agenda 21en helburua da udalerriietan jasangarritasa garatzeko, udaletxeee, jarraitu beharreko pausuak zehaztea. Hau da, politika jasangarriagoak sustatz, ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen ikuspuntutik, udalerrien hobekuntza egiteko nondik-norakoak finkatzea.

Gipuzkoa eta Bizkaiko udalerri gehienek bat egin dute, dagoeneko, programa horretan. Araban, berriz, gutxi batzuk dira Tokiko Agenda 21 zituzten udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Asier Agirre alkateak azaldu du Diputazioko Ingurumen Sailarekin egiten duten hirugarren bilera dela. Adierazi du proiektua interesagarria iruditzen zaiela eta, orain, gaia aztertu beharko dutela erabaki bat hartzeko.

Asier Agirre alkateak azaldu du Diputazioko Ingurumen Sailarekin egiten duten hirugarren bilera dela. Adierazi du proiektua interesagarria iruditzen zaiela eta, orain, gaia aztertu beharko dutela erabaki bat hartzeko.



Agenda 21 bultzatzeko Aldundiko teknikariek hitzaldia eskaini zuten. A. INUNTZIAGA

LEINTZ GATZAGA > GARAJEAK

## Garajerako izena eman dutenen zerrenda ikusgai

Zortzi egun ikusgai  
egon ondoren  
epaimahaia elkartuko  
da banatzeko

**MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA**

Pilotaleku azpian dagoen garaje itxiko lekuak eskuratzeko izen-emate epea abenduren 4an bukatu zen. Eskaera egindako guztiak eskatutako baldintzak betetzen dituztela frogatu dute egunotan, eta onartutako zerrenda ikusgai jarri dute. Eskaera egindako baten bat ez badago ados erabakiarekin zortzi egun ditu orain erreklamazioak aurkezteko.

**20 ESKAERA JASOTA**

Pilotaleku azpiko garajea Udalearena da, eta bertan 17 leku ditu automobilendako, bi motorren

dako eta beste bi quadsendako. Jasotako eskaerak, ostera, 20 izan dira: 18 automobilendako eta bi motorrendako. Hortaz, epaimahaia erabaki beharko du zelan banatu. Epaimahaia osatuko dute Udaleko Zerbitzu buruak, Hirigintza Saileko buruak eta idazkariak.

Hiru baldintza betetzea eskaatu diente izena emandako ei: motordun ibilgailu baten jabe izatea; Gatzagan erroldatuta egon eta herrian bertan bizi; eta Udalaren ibilgailuen gainezko zerga ordainduta izatea. Familia bakoitzeko garaje leku bakarra emango dute hasiera baten, eta lekuak sobera egonez gero bigarrena. Ondoren, Gatzagan bizi baina ibilgailua beste herri baten erroldatuta dutenek izango dute lehentasuna eta azkenik, Gatzagan bizi ez baina bertan lan egiten dutenek.

# Kirola



## > KROSA

Aritz Kortabarriak irabazi du Arrasaten atzo jokatutako krosa > **19**



## > BORROKA

Erakustaldia eta omenaldia Maider Undari Aramaioko herriak > **20**

## > ESKALADA

Patxi Usobiaga eskalatzalea eibartarra Arrasaten izan zen zapatuan Boulder txapelketa antolatzen. Eskaladaren gainean egin du berba Usabiagak gurekin > **21**



ESKALADA > SANTAMASETAKO 7. BOULDER TXAPELKETA

## Lehia estuan, Euskal Herriak irabazi zuen eskalada erronka

### GUTXIGATIK

20 puntuko aldea atera zion Euskal Herriak Arrasateri

### TXAPELKETA

Goizeko txapelketa 95 eskalatzaleek esku hartu zuten

### ARRAKASTA

Urtetik urtera gero eta zale gehiago hurbiltzen da boulder txapelketa ikustera

### ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Espero bezala, ikusmin handia piztu zuen zapatu arratsaldean Euskal Herriko eskalatzale onenek eta Arrasateko eskalatzale onenek jokatutako erronkak; eta, espero bezala, eskalatzaleek ez zuten hutsik egin. Lehia estua izan zuten Uarkape pilotaleku ibili ziren 12 eskalatzaleek; azkenean, baina, gutxigatik bada ere, Euskal Herriko mutilek irabazi zuten norgehiagoka. 330-350 nagusitu ziren kamiseta grisez lehiatu ziren mutilak.

### LAU BIDE

Etxeko eskalatzaleak Ander eta Markel Mendieta, Josu eta Iñaki Viejo, Ander Lasagabaster eta Mikel Velasko izan ziren. Euskal Herrikoak, osterak: Hernaniko Antton Zabala, Pasaiako Oier Iribarren, Donostiako Haritz Dominguez, Azpeitiko Beltza eta Gorka Kara, eta Gasteizko Jon Sard.

Antolatzaleek lau bide gertatu zituzten; bi samur eta beste bi zail. Esan behar da bideak presztatzen Patxi Usobiaga bi aldiz Munduko kopako txapelduna izandako ibili zela. Bide samurra eskalatzale guztiak igo zituzten, Euskal Herriko selekzioko kide batzuk izan ezik. Bide zailak, oste-

ra, oso gogorrak izan ziren eta ezin izan zituzten igo. "Azken emaitzan, igoera saiakerak hartzen dira kontuan. Hau da, Euskal Herriko selekzioko kideek saiakera gutxiago egin behar izan dituzte punto berdinak lortzeko", azaldu zigun Josean Mulas antolatzaleak.

Lehenengo aldia da horrelako erronka bat egiten dutena, eta Mulas pozik zegoen emaitzarekin: "Helburua Arrasaten dagoen maila ona erakustea izan da; Euskal Herriko selekzioren aurka gutxigatik galdu dugu", azpimarratu zuen Mulasek.

**GOIZEAN, SANTAMAS TXAPELKETA**  
Erronkak ikusmla sortu bazuen, Santamas txapelketak sortutako ikusmla ez zen gutxiago izan. 95 eskalatzale batu ziren Uarkapen 7. Santamas txapelketa jokatzeko. Mailetan banatuta, lau paneletan egindako zortzi bide igo behar izan zituzten eskalatzaleek.

Nagusien mailan, adibidez, nesketa Itziar Rodriguez izan zen txapelduna eta mutiletan Haritz Dominguez. Beste taldeak izan ziren: 20 urtez azpiko mutilak, neska herrikoia, mutil herrikoia, infantil nesnak eta infantil mutilak.


Mulasek lehiaketa amaitzerakoan azaldu zuen nesken parte-

hartzea ona izan zela; baina, beti bezala mutilak baino gutxiago animatu zirela. Horren harira esan zuen, eskalada elkartea sortzen dutenerako nesken entrenatziale-dinamizatzale figura sortzekotan dabiltzala, neska gehiago animatzeko eskalada egitera.

### SARRERAK ETA ERRIFAK

Orain arte ez bezala, zapatuan sarrera kobrau zieten txapelketa ikustera joan zirenei. "Uste baino txikiagoa izan da aurrekontua eta sarrera eta zozketa-txartelak saldu ditugu dirua lortzeko", esan zuen Mulasek. Gainera, Udaleko

Kultura eta Kirola sailak egindako lana azpimarratu gura izan zuen Mulasek, pilotaleku boulder txapelketa antolatzen uzteagatik. Amaieran, datorren urteko txapelketaz galdetuta, Patxi Usobiagak esan zuen gustura etorriko dela berriro ere laguntzera.



NORGEHIAGOKA Kamiseta berdez etxeko mutilak lehiatu ziren eta grisez, Euskal Herriko selekziokoak.

JOSETXO ARANTZABAL

### emaitzak

#### MAILAZ MAILA

##### ELITE NESKAK

1. Itziar Rodriguez

##### ELITE MUTILAK

1. Haritz Dominguez

##### 20 URTEZ AZPIKO MUTILAK

1. Josu Viejo

##### HERRIKOIA NESKAK

1. Oihane Epelde

##### HERRIKOIA MUTILAK

1. Iker Beaumugia

##### INFANTIL NESKAK

1. Nahi Vizcaino, Mirian Mulas eta Lara Larrañaga

##### INFANTIL MUTILAK

1. Josu Galindo

PREFERENTE MAILA &gt; ALOÑA-HERNANI

# Bi aldiz markagailuari buelta emateko gauza izan zen Aloña

Hernaniarrak bi aldiz aurreratu ziren markagailuan: 0-1 eta 1-2

Aloñak bi gol egin zituen bi minututan: Asier Ugartek sartu zuen garaipenaren gola

**ALOÑA MENDI**  
**3-2**  
**HERNANI**

**EDU MENDIBIL > OÑATI**  
Hotza eta futbol ona izan ziren atzoko protagonista nagusiak Azkoagainen. Jokalariak berotan sartzeko-edo, jokatzeari ekin zioten lehen minututik eta Azkoagainera joandako zale ausartek eskertu zuten futbolariek eskainitakoa. Partidu entretenigarria jokatu zuten Hernanik eta Aloñak.

Hasi eta berehala, lehenbiko kolpea eman zuten bisitariek, Olasagastik egindako gol ederra-ri esker. Etxekoek ez zuten etsi

eta berdinetaren bila aurrera jo zuten. Unai Arregik, falta jaurtiketaz egin zuen banakoa, 31. minutuan. Baino atsedernaldia baino lehen bigarren gola egin zuen Galdona hernaniarrak, faltaz baita.

#### EZKERTIARREN EGUNA

Bigarren zatian ere talde biek era-sora jo zuten. Hernanikoak ez ziren gertu atzean zain egoteko. Kontraerasoan arriskua sortzen jarraitu zuten. Eta kolpe bikoi-tza jaso zuten bigarren zatiaren erdialdean: Jon Igartuak faltaz egin zuen binakoa eta handik minuto batera, Roberto Idigorasekin *parea* egin ondoren, 3-2koia jarri zuen Asier Ugartek. Ezker-tiarren eguna izan zen. Etxekoek ezker hankarekin egin zituzten hiru golak.



Jon Igartuak bigarren gola egin zuen, falta jaurtiketaz.

J.A.

FUTBOLA &gt; PREFERENTEA

## UDAk eta Mondrak berdindu zapatuan

Aretxabaletarrek Tolosa liderra hartuko dute domekan Ibarran

**E.M. > BERGARA**  
Sailkapeneko lehen postua eskuratzeko aukera zuen UDAk zapatuan, baina aretxabaletarrak berdinetarekin konformatu behar izan ziren Astigarragan. Husnako berdinetarekin amaitu zen partidua. Futbol zelaia oso lokaztuta zegoen eta egoera horretan zaila zen jokaldiak harilkatzea. Talde biek ez zuten apena gol aukerarik izan. Tolosa liderra bisitari izango du UDAk domekan. Lidergoa eskuratzeko partidu erabakigarria.

**MONDRAK BINA**  
Mondrak bina berdindu zuen zapatuan Mojategin; 0-2 aurreratu zen Trintxerpe eta Julen Herizek egin zituen etxeoen bi golak, bigarrena 47. minutuan.

**JAIOTZAREN URTEURRENA 175.**  
**PEDRO BITERI HIZALDI ZIKLOA**



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

**Abenduak 16, 17 eta 18**  
**Kulturateko areto nagusia**  
**Ordua: 19:00**



**Abenduak 16**  
asteartea

**Hizlaria:**  
Ana Isabel Ugalde Gorostiza.  
(Artearen Historian Doktorea)

**Hitzaldia:**  
On Pedro de Viteri eta Mondragoeko modernizazioa.

**Abenduak 17**  
asteazkena

**Hizlaria:**  
Juan Ramon Garai. (Historialaria)  
**Hitzaldia:**  
Teresa Garcia eta Felix Arano.  
Maisu maistra ezin hobeak.

**Abenduak 18**  
osteguna

**Hizlaria:**  
Alberto Coto. (Munduko txapelduna kalkulu mentalean)  
**Hitzaldia:**  
Kalkulu mental azkarra.

## Kutxa Inbertsio-Irtenbideak



## Diru babestua.

Egunetik egunera, gero eta jende gehiagok erabakitzentzu du **Kutxaren Inbertsio-Irtenbideen** aterkipean babestea. Zure egoera pertsonalari gehien egokitzen zaion irtenbidea bilatzen lagunduko dizugu, zure dirua erabat babestuz.



zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava



# NIREKIN BATERA HITZEMAN: HORIRA EZ BEIRARIK EZ KARTOIRIK

**EDUKIONTZI HORIA PLASTIKO, LATA ETA BRIKENTZAT DA SOILIK.**

Zure hondakinak ongi bereizten dituzula eta dagokien edukiontzieta botatzen dituzula ziurta zaitez.  
Bestela, birziklatze prozesua hautsiko duzu. Ingurugiroaz ardura zaitez. Etorkizunaz ardura zaitez.

ondo birziklatzen ez baduzu,  
denon konpromisoa hautsiko duzu



AÑANAKO KOADRILA  
CUADRILLA DE AÑANA



CUADRILLA DE LAGUARDIA  
RIOJA ALAVESA



GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO  
KUADRILLA



CUADRILLA DE CAMPEZO-  
MONTAÑA ALAVESA  
KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEKO



aguraingo  
eskualdea  
cuadrilla de  
salvatierra



AYUNTAMIENTO DE  
ARRAZUA-UBARRUNDIA  
ARRAZUA-UBARRUNDIA'ko  
UDALA



CONSORCIO ESTRIBACIONES  
DEL  
GORBEA  
  
GORBEAKO INGURUEN  
PARTZUERGOA

SANTAMASETAKO KROSA > 31. EDIZIOA

# 138 parte hartzale guztira; arrakasta borobila izan da aurtengo krosa

Aritz Kortabarria (21:44) eta Marije Velasco (27:31) izan ziren azkarrenak

Gero eta jende gehiago erakartzen du krosak, antolakuntzak espero baino askoz gehiago

**JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE**  
Arrakasta borobila izan da aurtengo Santamasetako krosa, Enrike Kabiketa memoriala. 31. edizio honetan inoiz baino parte hartzale gehiago izan dira, 138 guztira, eta aurrekoetan baino giro hobea izan da ibilbide osoan zehar. Horretan, asko, ibilbide berriak zerikusia izan du. Izan ere, aurtengo ibilbidearen zati handiena alde zaharrean barrena egin da. Hontz, arrasatear askorentzat urteroko zita bihurtu da Santamasetako krosa. Eta ez arrasatearentzat bakanrik, atzo ibarreko eta Debagoienetik kanpoko lasterkari asko etorri ziren.

Lehiaketari berari dagokionez, ez zen sorpresa handirik izan, eta aurten ere Aritz Kortabarria izan zen azkarrena. Arrasatearrak 21 minuto eta 44 segundo behar izan zituen ibilbideko



Lasterketa irabazteko faborito gehienak irteerako lehen iladan . J.B.



Lasterketa hautsi aurretik faborito gehienak talde berean joan ziren. XABIER URTZELAI

6 kilometro 400 metroak egiteko. Emakumezkoen artean ere ezusteko handirik ez: Marije Velasco azkarrena; 27 minuto eta 31 segundorekin. Koadrilen arteko lehian, arkumea *Euskal Presoak Etxera*-rentzat izan zen.

## IBILBIDE BERRIA

Ibilbide berria izan da aurtengoa. Aldaketa nagusia Maatalik hasi eta Muxibar arteko tarteak ken-

tzea izan da. Neurri honekin Arrasate Atletiko Taldeak lasterketa Arrasateko alde zaharrera ekartzea gura izan du, ikusleei begira batez ere. Horretan asmatu egin dutela esan beharko.

Ibilbideak bihurgune gehiago izan ditu aurten eta zorua labainkor egoteak erorikoren bat edo beste eragin zuen. Lasterketa buruan zihoazen Aritz Kortabarria eta Gaizka Romero erori

egin ziren. Erori baina lehen bigarrenak geratu.

Hala, ibilbidearekin pozik agertu ziren parte hartzale gehienak. Gaizka Romero adierazi zuenez, "labaindu egin naizen arren, ibilbidea oso egokia dela uste dut. Herri erdian izateak xarma berezia ematen dio, eta espero dut datorren urtean ere ibilbidea berbera izatea".

Hala ere, iritzi ezberdina zuen Marije Velascok, emakumeen artean lehena izan zenak: "Ibilbide berriak kurba larregi ditu eta zorua oso labainkor zegoen, gurago dut aurreko urteetako ibilbidea".

## PARTZEAK GORA NABARMEN

"60 eta 90 lagun aurkeztuko zirela uste genuen hasieran, eta guztira 138 aurkeztu dira". Jon Ormaetxea Arrasate Atletiko Taldeko kide eta Santamasetako krosaren antolatziale nagusiaren hitzak dira. Parte hartzale altua albiste pozgarria bada ere, ez zen egun erraza izan antolakuntzakoenetzat. Izan ere, antolatzialeek ezin izaten dute aurrez parte hartzale kopurua kalkulatu, lasterketa baino ordu eta erdi lehenago zabaltzen baita izen ematea.

Adibide bat, esangurarik ez duen detailea dirudienea: izena ematen azkenak izan zirenak dortsala kamisetara lotzeko kateorratz gabe geratu ziren.

## LAGUN GIROA NAGUSI...

Korrikan egiten lehenak gaztetxoenak izan ziren. 11:00etan hasi eta 12:00ak arte, euren gurasoen animuen laguntzaz ia arnas gabe geratu arte egin zuten korrika. Ordurako helduak hasiak ziren beroketa ariketak egiten. Lasterketa aurretik lagun giroa eta

txantxak nagusi, kaleean zehar elkarrekin topo egiten zuten aspaldiko lagunen artean. Hala ere, irteera ordua hurbiltzen zihoa an heinean, korrikalariak serioa hasi ziren jartzen.

## ...IRTEERA EMAN ARTE

Maala kaleko irteera puntuau, beraz, txantxa gutxi. Hamar minututako atzerapenarekin hasi zen lasterketa eta irteera eman eta berehala faboritoak hasi ziren erritmo bizia jartzen.

Santamasetako krosaren arrakasta izaera herrikoian oinarritzen da neurri handi batean. Beste arrazoi bat ere egon daiteke: Gabonetan gehiegia jan eta gehiegia edango dugunez, norbere burua lasaitzeko kirola egitea...

## e maitzak

### MAILAZ MAILA

#### LEHEN 5 MUTILAK

Aritz Kortabarria	21:44
Gaizka Romero	21:48
Markel Blanco	21:49
Asier Osinaga	21:53
Richar De Goñi	22:17

#### LEHEN 5 NESKAK

Marije Velasco	27:31
Zuriñe Ezpeleta	28:29
Trini Blazquez	28:46
Helen Cooper	28:49
Yolanda Perez de Arenaza	29:57

#### LEHEN 5 KOADRILAK

Euskal Presoak Etxera	99 puntu
Los guapos	160 puntu
El duelo	168 puntu
Bostak	183 puntu
Gero baskaixa	184 puntu



Aritz Kortabarria irabazole, atzean Gaizka Romero, bigarren sailkatua, lau segundo eskasera duelarik . J.B.

**BORROKA > ERAKUSTALDIA ETA OMENALDIA**

## Herritarren omenaldia jaso zuen Maider Undak atzo

Barakaldoko Munoa elkartekoekin batera erakustaldia egin zuten Aramaiko kirolegian

**ARANTZAZU EZKIBEL > ARAMAIO**  
Egun berezia izan zen atzokoa Maider Unda borrokalariaren tzat. Lehenengo, herritarren aurrean borroka erakustaldia egin zuen; eta, gero, ustekabeko omenaldia jaso zuen herritarren aldetik.

Eguedik 12etan hasi ziren erakustaldiarekin Aramaiko

kirolegian. Maider Unda, Luis Crespo entrenatzailea eta Mikel Mardones gasteiztarrek Barakaldoko Munoa borroka elkarteko Yera Ortiz, Arrate Hojas, Ismael Zanbrano, Oroitz Bardon eta Haritz Larrinagan laguntena izan zuten. Lehenengo ohiko berokeita ariketak egin zituzten; eta, gero borrokarekin hasi ziren.

### TEKNIKA ETA BORROKA

Erakustaldian puntu bateko eta bi puntu teknikak erakutsi zituzten. Aurkaria lurrera buruz behera botatzek puntu bat balio du borrokan; eta, gorputzaren gainetik pasata aurkariak bizkarrekin lurra ukitzen badu, bi puntu. Kirodegira hurbildutako zaleek gustura ikusi zuten era-kustaldia.

Amaieran, ezusteko omenaldia jaso zuen Undak. Dantzari txikien aurreskua, eta lore sorta eta txapela jaso zituen Maiderrek.



Barakaldoko Munoa elkarteko borrokalariak, atzoko erakustaldian. JOSETXO ARANTZABAL

### IKUSLEEN IRITZIAK



Amaia Arregi



Juanan Aretxaga



Iñaki Gabilondo



Aramaiko alkate Asier Agirre, Unda eta Ainara Inuntziaga zinegotzia. J.A.

**KARATE > GIPUZKOAKO SENIOR TXAPELKETA**

## Katan lehenengo eta kumiten bigarren egin du Arrasatek

Gainera, beste lau kopa irabazi ditu Arrasateko taldeak atzo jokatutako lehian

**A.E. > ARRASATE**  
Lan txukuna egin zuten Arrasateko Karate Elkartea atzo jokatutako Gipuzkoako senior mailako txapelketan. Uste baino "hobeto" joan zela txapelketa adie-

razi zigun amaieran Goizeder Caballero entrenatzaileak.

### 75 PARTE-HARTZAILE

Gipuzkoa osotik etorritako 75 parte-hartzaile ibili ziren atzoko lehian. Ibarretik, Arrasatekoak bakarrik. Kata eta kumite modalitatean lehiatu ziren. Aipatzeko da kata modalitatean Arrasateko taldea lehenengo postuan gelditu zela. Kumiten, ostera, bigarrenak izan ziren Donostiarra Bera-Bera taldearen atzetik.

Banakako lehian, 75 kilotik beherako mailan, Carlos Sanchez lehenengo izan zen. 84 kilotik beherakoan, Jon Rodriguez lehenengo postua lortu zuen eta Eneko Ruizek hirugarrena. Azkenik, 84 kilotik gorakoan, Joseba Izurrategi hirugarren izan zen.

Esan, datorren otsailean senior mailako Euskadiko txapelketa jokatuko dela Bergarako Labegaraieta kirolegian.



Iturrieko txapelketan 75 lagun izan ziren lehian atzo.

JOSETXO ARANTZABAL

**FUTBOLA > GABONETAKO III. TXAPELKETA**

## Aurkeztu dute Gabonetako emakumezkoen txapelketa

### A.E. > ARETXABAleta

Egubakoitzean aurkeztu zuten Arizmendi Kirol Elkartea antolatutako Gabonetako Emakumezkoen III. futbol txapelketa.

Abenduaren 26an eta 27an jokatuko dira partiduak. Orain arteko helburu berarekin jarraitzen du Arizmendik: Debagoienean emakumezkoen artean kirola sustatzea.

### LAU TALDE LEHIAN

Abenduaren 27an, ostera, Debagoieneko selekzioak, Realak, Athleticek eta Eibarrek jokatuko dute 09:30ean hasita.



Egubakoitzean aurkeztu zuten txapelketa, prentsa aurrean.

MIRARI ALTUBE

Patxi Usobiaga > Eskalatzailea

# "Nire helburu nagusia mundu mailako titulu guztiak irabaztea da; oraingoz, munduko txapelketa da falta zaidana"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Patxi Usobiaga (Eibar, 1980) Arrasaten izan da aste bukaeran Santamasetako Boulder txapelketan laguntzen. Eskala da bere afizioa eta afizioa; eta, horretaz jardun dugu. Aurtengo lorpenak eta dato-ren urteko erronkak esandizigu.

**Txapelketan laguntzen egon zara. Lotura estua duzu Arrasateren?**

Bai, esan daiteke eskaldarekin daukadala lotura zuzena. Gainera, Josean Mulas eta beste hainbat ere ezagutzen ditut. Txapelketa antolatu dutela kontuan hartuta, beti gustatzen zait ahal dudan neurrian laguntea.

**Aukera aprobetxatu duzu escalada giroaz gozatu eta lagun artean egoteko, hortaz.**

Bai, normalean beste txapelketa mota batean egoten naiz; horregatik horrelako txapelketak gustatzen zaizkit. Hemen dagoen festa giroaz gozatu eta gauzak beste ikuspuntu batetik ikusteko balio dit. Barrutik beharrean, kanpotik.

**Jende askok parte hartu du. Zer nolako maila ikusi duzu?**

Maila ona dago. Gainera, aurten egin duten Euskadi eta Arrasate arteko txapelketa oso interesgarria iruditu zait.

Zaila da horrenbeste lagun zortzi boulderretan bereiztea; horregatik uste dut ondo joan dela txapelketa. Jendea pozik geratua behintzat. Jendearen erantzuna oso positiboa izan da; azkenean, jendeak eskatuta luzatu egin dute txapelketa ordua. Hortaz, dena ondo joan den seinale.

**Ze lan egin duzu?**

Nere lana, beste batzuekin batera, boulderra muntatzea izan da; hau da, bideen diseinua egitea. Zailtasun handiko lana da: jendeari gustatu egin behar zaio, zailtasuna justua izan behar da... konpromiso handia da. Gauzak ondo ateratzeko lana ondo egin behar da.

Zortzi boulder daude. Mula-sek eskatuta, hiru erraz, hiru ertain eta bi gogor jarri ditugu.

**Nola ikusten duzu Debagoiene-ko escaladaren egoera?**

Nik uste dut jendea gogor lan egiten dabilela. Josean Mulas hor dago baina baina ez da bakarra; Arrasateko gazteen gurasoak ere badabiltza lanean. Oso garrantzitsua da jendeak lan egitea. Ez dakit lan honen ondorioz oso escalatzaile gogorrak aterako diren edo ez, baina behintzat escalatzaileak aterako dira. Gero



Patxi Usobiaga Uarkape pilotalekuaren, zapatuan.

emaitza onak lortu nituen eta poliki poliki gorantz joan naiz. Gaur egun amets baten barruan bizi naiz.

**Urtea amaitzean dago, nola baloratzen duzu aurtengo urtea?**

Munduko Kopa hirugarren aldiz irabaztea lortu ez dudan arren, oso positiboa izan da aurtengo urtea. Nire eskutan izan nuen kopa irailaren inguruan; baina, irabazteko gogo larregi izate horrek galtzea ekarri didala uste dut. Azkenean hirugaren postuan geratu naiz.

Aurtengo urterako lau helburu nituen: Serre Chevalier, Arco Rock Masterra, Europako txapelketa eta Munduko Kopa. Azkenean, bi lortu ditut eta uste dut oso urte positiboa izan dela.

**Gainera, Espainiako federazioak saritu zaitu.**

Bai, gaur –zapatua– eman behar zidaten Madrilren aurtengo Europako txapelketa irabaztearen sari bat; eta, urtarrilean, urteko escalatzaile onenaren saria emango didate.

Sari guztiak dira pozgarriak. Sariak sari dira eta pozten nau te baloratzen dutelako egindako lana; baina, ez zaie daukatena baino garantzi gehiago eman behar. Beti esan izan dut politena bertara iristea dela, egindako lan guztia. Txapelketa baten, adibidez, behin irabazita, saria ematen dizuten unean hurrengo erronkan pentsatzen egoten naiz.

**Datorren urteari begira, zeintzuk dira erronkak?**

Munduko Kopa eta munduko txapelketa izango dira erronka nagusiak datorren urtean. Nire helburu nagusia da mundu mailan dauden titulu guztiak irabaztea eta momentuz bakarra falta zait: munduko txapelketa [hirutan bigarren egin du].

**Zer da zuretzako escalada?**

Dena dela esan behar dut. Hamar urterekin hasi nintzen escalatzen eta urte hauetan dena eman dit. Bizitzak dauzkan berezitasun guztiak eman dizkit escaladak, onerako eta txarrerako.

**Zein da escalatzeko zure toki gustukoena?**

Araotz oso gustuko dut. Esan daiteke nire haurreskola izan zela escalada munduan. Han ebo-luzionatu dut: hango lagun guztiekin eta hango bide guztiekin. Azkenean hori izan da nire ebo-luzioaren tokia. Barnean daukadan tokia da Araotz.

**"Normalean beste txapelketa mota batean egoten naiz; hala, giroaz gozatu eta txapelketa beste ikuspuntu batetik ikusi ahal izan dut"**

**Zu ere Joseanekin hasi zinen.**

Duela urte mordoa nik Joseanekin escalatzen nuen. Esan daiteke Josean izan dela nire tutore handienetariko bat; eta, begira nora heldu naizen. Gero, norberak bere bidea jarraitu behar du baina erraztasunak eman zizkidan Joseanek.

**Eta, nola ematen da eliterako salto hori?**

Zorte kontua ere bada, baina norberaren jarrerak ere zeresan handia dauka. Niri beti gustatu izan zait hobetzea, ez naiz inoiz puntu batekin konformatu. Futbolean jokatzen nuenean, eta atletismoan nenbilenean ere berdin na nintzen.

Gero, escaladan aurkitu nuen nire motibazio iturria eta azkenean, nire bizimodu.

Escalatza gustatzen zitzaidan, ondo ikusten nuen nire burua, eta oso diziplinatua nintzenez, eboluzio bat egon da. Diziplina hori mantentzen jende askok lagundu dit. Zortearekin

BERGARA

# Herri kirolen topaketa izan zen zapatu goizean Labegaraietan

**TALDEAK** Neska-mutilak nahastuta; Bergara, Antzuola eta Elgetako gaztetxoak zeuden talde bakoitzean

**PROBAK** Bost proba egin zituzten: lokotxak, txinga eramatea, soka-tira, zaku eramatea eta jende proba

**ANIMOAK** Gaztetxoak elkarren artean animatzeaz gain, gurasoak ere bertan ziren egindako lana txalotzeko

AMAIA TXINTXURRETA &gt; BERGARA

Zapatuoren bezala, Bergara, Antzuola eta Elgetako gaztetxoak eskola kiroletarako bildu ziren. Baino besteetan ez bezala, hiru herriko neska-mutilak talde berriak sortzeko, nahastu egin ziren.

Benjamin mailakoentzako txanda 10:00etan izan zen, eta ondorengo bi orduetan, alebinez hartu zuten erreleboa. Txikienek jolasten ondo pasatzeko modua eduki zuten. Alebinez, osteria, beraien arteko txapelketa jokatu behar izan zuten.

Bost proba pasa behar izan zituzten taldekideek: lokotxak, txinga eramatea, soka-tira, zaku eramatea eta jende proba. Kirodegia umez gainezka egoteaz gain, guraso mordoa elkartu zen neska-mutikoei animoak emateko. Eta entzungai zegoen euskal taldeen musikak ere, giroa asko alaitzen zuen.

Ondo baino hobeto moldatu ziren neska-mutikoak herri kiroletan eta goiz batez, jolas ezberdinan parte hartzeko aukera eduki zuten. Hurrengo astean, Gabonak direla eta, atsedena edukiko dute. Ondorioz, urtarrilean indarrak guztiz berreskuratuta itzuliko dira benjaminkin esku pilotarekin eta alebinak eskaldadarekin eta hockeyarekin.

**HERRI KIROLETAKO FEDERAZIOA**  
Herri kiroletako federazioak antolatu zuen topaketa. Xiba Ikastolen Elkarteko konfederaziokoko Jone Larrañaga, Eñaut Telleria eta Iraiti Altuna izan ziren kirolegikoa antolatzen. Hirukotea herriz herri ibiltzen da kirolak antolatzen.



**Antzuola A.** Goian, ezkerretik eskumara: Uxue Iparragirre, Onintza Olano eta Naiara Fernandez. Eta behean: Jon Baleztena, Irati Arantzabal eta Patxi Abasolo taldekideak.



**San Martín A.** Iñigo Agirre, Oier Barragan, Olatz Ruiz de Larramendi, Olatz Azkarate, Iñaki Gonzalez, Kepa Roije, Andoni Elorza eta Beñat Uribesalgok osatzen dute taldea.



**Mariaren Lagundia.** Argazkian: Xabi Argarate, Markel Dominguez, Iker Barkero, Aritz Basterra, Ibai Gonzalez, Henrique Da Silva, Paul Roman, Antxon Lazpiur, Asier Zubia eta Gorka Azkargorta.



**Antzuola C.** Jon Cotillas, Unai Larrea, Euken Rodriguez, Aritz Etxabe, Aimar Larrea, Nagore Otadui, Jone Jauregi eta Aritz Irialagoitia taldekideak agertzen dira goiko argazkian.



Aimar Larrea  
Antzuola C

Iraiti Arantzabal  
Antzuola A

Ainhoa Zeziaga  
Elgeta

Henrique Da Silva eta Xabi Argarate  
Mariaren Lagundia

Ibai Gonzalez  
Mariaren Lagundia

"Dudarik gabe herri kirolak asko gustatzen zaizkit" aitortu zigun Larreak. "Kirol ezberdinan parte hartu dugu taldean eta goiz dibertigarria izan da gaurkoan" gaineratu digu antzuolarrak. Pozik zegoen Aimar.


Herri kirolak politak direla adierazi zigun Arantzabalek. "Futbola edo eskubaloian sarriago jokatzen dugu normalean, eta kirol tradizional hauek gutxiagotan egiten baditugu ere, gustuko ditut" esan zigun.

"Kirola egitea asko atsegin dudanez, gaurkoan ere gustura aritu naiz taldekidekin batera" azaldu zigun. Noizean behin goiz arruntetatik irtetea eta gauza ezberdinak egitea ondo egoten dela adierazi zigun Zeziagak.

Pozik azaldu dira: "Hiru herriko neska-mutikoak nahastu egin dituzte gaurko saioan eta talde berrietan jarri gaituzte". Modu horretara, beraien adineko gaztetxoak ezagutzeko aukera eduki dute herri kirolen bitartez.

"Gustatzen zaizkit herri kirolak" eta goizean zehar lagunak egin zituela aitortu zigun Gonzalezek. "Aurretik ere, jarri gintzuten hiru herriko taldeak elkarrekin eta metodo hori atsegin dut, neska-mutilak gehiago ezagutzeko aukera ematen baitu".

GUSTATZEN AL ZAIZKIZU HERRI KIROLAK? ZERGATIK?



## > MUSIKA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak emanaldia egin du Bergaran >**26**

## > KONTZERTUAK

Gabonetako kontzertuak izan dira asteburuan Oñatin eta Bergaran >**27**

## > ELKARRIZKETA

Arianna Puello hip-hop abeslari ezaguna Arrasaten >**27**



IRAUTZA The Wet Band talde mutrikuarrak autobus bat ekarri zuen Elgetara, Ilagun eta jarraitzailez beteta. Ikusleek eta musikariekin giroa jarri zuten Espaloian.

JOSETXO ARANTZABAL

# Hasieratik girotuta, folk edo rock, jaia nagusi

Estilo aldetik bariatuena eta girok beroena izan zuen egubakoitzeko saioak

Flipin Folk, Rock Privado, The Wet Band eta Turboshitek jo zuten hurrenez hurren

JON BEREZIBAR > ELGETA  
Kontakizuna hastea jende gutxi igo zela esaten gomendagarria ez bada ere, gauzak ez dira beti itxuraren araberakoak. Lau katu igota ere festa eta dantzarako prest badaude, giro ezin hobean, nork gura du Espaloia betetzea jaia hasieratik bermatuta egon bada? Lau katu ez, agian berrogei izan ziren baina, esandakoa: orain arteko girok onenean jardun

zuten batez, ere Mutrikutik etorritako katuei esker.

### FOLKAREN FRESKOTASUNA

Espaloian jaia bermatuta bazeukanen ere, asko eman zuten Flipin Folkekoek ere euren aldetik. Folk, freskoarekin, doinuz alai eta musikalki oparo, aitzakia gutxiko saioa egin dute. Izenak ez du engainatzen: folka izan zen entzun genuena baina folka reg-

gae ukituarekin, pop-rock-era jota, euskal, irlandar... folk irekia eta batez ere alai eta dantzagarria. Giroa ondo berotu eta ikusleek ere oso gustura jarraitu – eta dantzatu, eta animatu – zuten saio osoa. *Furra-furrako*, berrogei katuak ondo ugaldu eta Espaloia bete zen azkenean.

### ROCKAREN TXANDA

Rocka, ‘Springsteen’s erara’, *americana* apur bat eta bizipenez betetako letrak erabili zituzten amu bezala Rock Privadokoek, Danbakako beteranoenek. Bihotzetik jo eta abestu dute, estiloari oso leial eta indar handiarekin baina nahiko lau. Oso amerikarra da euren estiloa eta horri estu helduz jardun zuten *americanatik blueseraino edo country-*

### DENBORA

### Lehiaketa bat da eta arauak daude

Partaide guztiak diote gauza bera saioa amaitu eta agertokia utzitakoan: laburra iruditu zaiela. Ordu erdi ere ez daukate taldeek zuzenean konbentzitzeko eta guztia eman beharra daukate. Segundo bakoitza da garrantzitsua, denbora ondo aprobetxatzen jakin behar da. Guztiak aitatzentz dute oso gustura jo dutela eta horrela uler daiteke agertokia uztea kostatzea. Baina arauak arau dira, eta ezin dira hautsi, The Wet Bandekoek egin zuten moduan, gehiago jota. Errespetu kontua da finean.

ra jota eta hor hartu zuten kolore apur bat.

### AZKENEAN, EGURRA

Rock sendoa, ahots dardarlatia eta gerri malgua. Nolabait, horrela definiliteke The Wet Band mutrikuarraren musika baina hard-rocktik eta pop-etik ere jo zuten. Emaitz: indar handia eta sendotasuna. Azkenean, hasieran pentsatu baino egur gehiago eman zuten.

Indarra aurreko taldearekin gogortu bazen bergararren punk-rockak azkeneko astindua eman zion Espaloiarri. Bizi, gogor eta tikitak handiarekin, gauari falta izan zitzaison rock-and-roll mamia eman zioten Turboshitekoek. Maila tekniko altua eta erritmoari huts egiteke jo zuten.



## FLIPIN FOLK | Ermua - Eibar

**Aditua** > Leire Ibarzabal

"Instrumentista onak dira, elkarlan ona egin dute talde modura eta abesti instrumentalak oso onak iruditu zaizkit. Bukaneran bi bertsio egin dituzte, oso ezagunak, eta euren errepetorio gabezia agerian geratu dela iruditu zait. Agian bertsio horiek gabe, gutxiago jota, hobeto aterako litzateke".

**Ikusleek esana** > Jon Zubiaga

"Indar apur bat falta izan zaie. Beste barik soinu arazo bat izan zitekeen baina indar hori ez da ikusi. Gainera bertsioak jota nortasun falta ekarri dezake ze oso abesti ezagunak jo dituzte. Estilo aldetik difrenteak dira eta hori ondo dago.

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar

"Hasiera oso ona eman diote. Instrumen-taletan oso ondo jardun dute baina amaieran behera egin dute erremedio barik ber-tsiokin, ekarpen berezirik ez da-eta egon. Talde ona da hala ere. Euren errepetorio gehiago izango balute asmatuko lukete".

**Taldekideek esana**

"Lehenak izanda, beti kostatzen da gehiago sartzea baina ikusleek asko animatu gaituzte. Entseatzeko astirik ez dugu izan astean baina ondo egin dugu. Oso gustura geratu gara. Ordu erdiko saioak gainera ez du askorako ematen. Bero zaudenean eta guztia ematen, bat-batean eten egiten da".



## ROCK PRIVADO | Oñati

**Adituak** > Leire Ibarzabal

"Monotono ikusi ditut bai erritmo aldetik zein abestien tonalitatearen aldetik. Oso abesti antzerakoak jo dituzte. Bluesera jo dutenean piztu dira apur bat eta orduan oso ondo egon dira. Taldeari dago-kionez, oso ondo, asko entseauta zetoze-la ikusi da. Abestiak landuta ekarri dituze baina oso laua izan da; ez dute tempo-ekin jolastu, adibidez.

**Ikusleek esana** > Jon Zubiaga

"Talde moduan oso ondo jardun dute baina eragin nabarmenegiak erakutsi dituzte, baina influentziak denok dauzkagu. Euren bidea egitea falta zaie baina abesti aldetik – melodía – ondo ikusi ditut".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar

"Hazi egin dira aurrera egin ahala eta uste baino hobeto amaitu dute blues ukita-rekin. Estilora zurrunegi lotu dira eta nor-tasun apur bat falta izan zaie".

**Taldekideek esana**

"Hasieran urduritasun handiarekin bai-na bigarren abestirako sartuta eta disfru-tatzan zuade. Benetan gutxi da ordu erdi-ko saioa ze benetan gustura egon gara. Ondo pasatzeko etorri gara beraz horre-kin ere nahikoa zaigu. Saiatu gara kali-tatearekin etortzen baina guk gozatzea izan da lehentasuna. Gure abestirik one-nak ekarri ditugu eta kontzertua poliki-poliki hazten joatea gura izan dugu".



## THE WET BAND | Mutriku

**Adituak** > Leire Ibarzabal

"Maila handiko taldea iruditu zait. Musi-kari onak iruditu zaizkit eta batez ere baxu jotzailea nabarmenduko nuke. Abeslaria ere ondo; animatu eta ikusleekin konek-tatzea lortu du, behar moduan goxotasuna eta bortiztasuna atereaz, eta oso ondo modulatu du ahotsa. Hala ere, luze jo dute, araututako denbora gainditu dute eta nolabait zigortu beharko litzateke hori ze hau lehiaketa bat da".

**Ikusleek esana** > Jon Zubiaga

"Irabaztetik oso gertu ikusten ditut, fina-lera nahitaez. Indarra daukate eta estilo klasiko baten mugitura ere nortasuna eta indarra eman diote".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar

"Oso ondo. Talde osoa zein banan-banan bikain. Behin berotu direnean eta lasa-itu, finalera txartela merezi dutela esan lite-ke. Abesti gogorrenetan melodikoetan baino hobeto ikusi ditut. Presentziarik onena ere eurena izan da".

**Taldekideek esana**

"Hasiera-hasieratik oso gustura egon gara. Mutrikutik jende asko etorri da ani-matzera eta gozatu ederra hartu dugu. Guz-tia erakutsi gura duzu kontzertuan, pre-saka daukagun guztia eman, eta berezia izan da zentzu horretan ere. Gure kartak erakutsi ditugu eta gustura gaude egin-dakoarekin".



## TURBOSHIT | Bergara

**Adituak** > Leire Ibarzabal

"Oso indartsu. Hiru bakarrik dira, zail-tasuna da hori, eta bikain egin dute. Oso landuta zeukaten guztia: erritmo aldake-tak, abeslariak ahotsa oso moldakor, goiti-zein behetik. Abestiak jarraian jo dituzte, horrek dakarren zailtasun guz-tiarekin. Gaurko saiotik nik garbi ikus-ten dut finalera eurek joan beharko luke-tela: indarra daukataloko, orekaren-gatik eta merezi dutelako".

**Ikusleek esana** > Jon Zubiaga

"Buenavista punk rock hori oso ondo egiten dute baina leku txarra egokitzaie ze azkenak jo dute. Baino oso ondo, hiruko-tea izanda indar asko erakutsi dute".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar

"Hauek ere oso ondo, punk-rockaren mamia ekarri dute-eta. Gauari amorrua eta indarra falta izan bazaio zenbait une-tan, Turboshitekoek bete dute hori eta oso abesti onak ekarriaz gainera".

**Taldekideek esana**

"Orokorean oso gustura geratu gara. Gaurko errepetorio zehatza prestatu dugu eta horretan zentratu gara guztia jarraian joaz eta indartsu eusten. Uste genuen agian hotzagoa izango zela guztia baina ez zaigu hori iruditu azkenean. Kamerek hasiera baten gainera impresio apur bat ematen dute nahiz eta gero bere-hala ahaztu zaigun han zeudela".

## Publikoaren Saria

Eman zure botoa, kontzertuko sarreraren atzealdean zure gustuko taldea aukeratuta.

**1 BITTER HONEY**  
ARRASATE  
Botoen % 10,15

**2 TURBOSHIT**  
BERGARA  
Botoen % 9,56

**3 THE 5 TWISTERS**  
ARRASATE  
Botoen % 9,32

**4 FOXXY BOXXI**  
ARRASATE  
Botoen % 7,67

**5 IGOR SANJUAN**  
ARETXABAleta  
Botoen % 7,55

**6 LOS VIERNES AL RON**  
ANTZIOLA  
Botoen % 7,08

**7 SCAM**  
ARETXABAleta  
Botoen % 6,49

**8 MERY MAY**  
ARRASATE  
Botoen % 6,37

**9 THE WET BAND**  
MUTRIKU  
Botoen % 5,54

**10 NORMAN**  
EIBAR  
Botoen % 5,31

**11 DAMUDOT**  
MALLABIA  
Botoen % 5,19

**12 BRANKAN**  
BERRIZ-MARKINA  
Botoen % 4,01

**13 NI NEU**  
EIBAR  
Botoen % 3,31

**14 LORD WITCH**  
BERGARA  
Botoen % 3,06

**15 FLIPIN FOLK**  
EIBAR-ERMUA  
Botoen % 2,36

**16 ADI HOLDEN**  
BERGARA  
Botoen % 1,65

**17 ARMY-ARMA**  
ZORNOTZA  
Botoen % 1,64

**18 HILBETE**  
DURANGO  
Botoen % 1,53

**19 YMOTEK**  
ABADIÑO  
Botoen % 1,06

**20 ROCK PRIVADO**  
OÑATI  
Botoen % 1,06

**21 THE MOTHERFUCKERS**  
ARRASATE  
Botoen % 0,23

**22 BARUA BANDA**  
ESKORIATZA  
Botoen % 0,23

**23 REVELPHONE**  
SORALUZE  
Botoen % 0

**24 TUESDAY EVENINGS**  
DURANGO  
Botoen % 0



## Mutrikuaren iraultza Espaloian

M utrikuko rock kolektibokoek giro bikaina jarri zuten hasieratik. Ez zitzaien umorea eta saltsarako gogoa falta. Horrelako jarraitzaileekin guk ere sortuko genuke rock taldea! Autobuskada etorrizzen Mutrikutik. Gainera euren animoak beste taldeko musikariekin eskertu zituzten. Aitor Sologaistoa Flipin Folkeko kideak eman zizkien eskerrak mutrikuarei.

Lord Witch taldeko Iker Narvaez ere hemen egon zen, Turboshiteko lagunen jarraitzaile fina. Eta beste musikari bat, Jim TNT, kontzertu askotan ikusi duguna.

Bitter Honeyko Aitorrek aitortu zigun taldeen maila ikustera etorri zirela, "konpetentzia gerutik jarraitzera".

Rock Privadokoei Bruce Springsteen tokea hartu genien, The Bossen emaztea koruak egiten izan zen-eta!

Bosgarren kontzertuan ere Elgetako bati egokitutu zitzaien zozketatutako saria. Jendea zozketan tranpa dagoela esaten ere hasi da! Beti ote dute horrelako zortea elgetarrek?

Mutilez betetako lehiaketan pozgarria da neskak ere taula gainean ikustea. Gora Rocio, Ainara eta Maria!

## Abenduaren 19an

- > Barua Banda (Esko.)
- > Tuesday Evenings (Dur.)
- > The Motherfuckers (Arr.)
- > Revelphone (Soraluze)

## HAN IRITZIA EMAN DIGUTE

**David Suarez**  
Eibar

"Flipin Folk ikustera etorri naiz; oso ondo egon da kontzertua. Musika alaia izan da nagusi, jendea animatzeko moduko emanaldia eskaini dute. Denetariko musika instrumentuak ekarri dituzte eta hauek erabilitzen teknika handia dutela argi geratu da".

**David Peñalber**  
Elgeta

"Mutrikuarrak arrastoa utzi dute. Euren estiloa ondo jorratu dute, oso talde ona daukate. Abeslariaren ahotsa asko gustatu zait. Turboshit-en estiloa, bestalde, gustatzan zait baina emanaldia ez zait asko gustatu. Gitarraren soinua ez zait gustatu, ezta ahotsa ere".

**Jon Zangitu**  
Bergara

"The Wet Band taldeak harritu egin nau. Hasieran nahiko motel hasi badira ere, indarra hartzen joan dira eta amaierarako asko konbentzitu naute. Abeslariaren ahotsa nabarmenduko nuke, eta gitarra jolea oso ona iruditu zait teknikoki. Talde sendoa da".

**Jon Irazabal**  
Elgeta

"Askotan etortzen naiz Danbakara. Gaurkoan ere oso ondo joan da gaua. Turboshit nabarmenduko nuke, aurrez bateria jotzen ikusia nuen ezagun bat gitarra astintzen lehenengo ikusi dudalako. Abesten ere ondo ikusi dut, hora da taldeari nortasuna ematen diona".

**Goretti Delgado**  
Oñati

"Rock Privadogatik igo naiz Elgetara, gustatzen zaidan musika estiloarekin bat dator-eta. Oso ondo egon da; emakumearen ahotsa eta bateria jolearen jotzeko modua nabarmenduko nituzke. Ez dute jende asko mugitu baina musikalki emanaldi ona izan da".

MUSIKA &gt; EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA BERGARAN

# Pilotalekua beteta eta ikusleak pozik, 18 urte eta gero

Musika Eskolaren 25. urteurrena ospatzeko lehen ekitaldia izan zen egubakoitzekoa

Orkestrak sei lan eskaini zituen; horietatik bi, Gonzalez Bastida anaienak

MIREN ARREGI &gt; BERGARA

Iragarritako orduan hasi zen egubakoitzean Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Bergarako pilotalekuaren eskaini zuen kontzertua. Iragarritako orduan eta iragarri zitekeen jende kopuru ikaragarriak pilotalekua txiki uzten zuen bitartean, Bergarako Musika Eskolaren 25 urteurrena ospatzeko lehen ekitaldia hastera zihoa. Arrakasta itzela izan zuen, izan ere, Orkestra Sinfonikoak bergarar biren lanak interpretatu zituen kontzertuan; Miguel Gonzalez Bastida eta Jose Maria Gonzalez Bastida anaien lanak hain justu. Ezin uku, beraz, Orkestra Sinfonikoak ez zuela inongo intentziorik bergarrak etxera axolagabe bidaltzeko, justu alderantziz, Bergaran izen propio garrantzitsuak diren Gonzalez Bastida anaien lanak interpretatzea asmatze bat izan zen-eta. Kontzertu berezia izan zen, Iker Sanchez Orkestrako zuzendariak

esan bezala, "bergarar biren lanak interpretatzek Orkestraren eta publikoaren artean hurbiltasun goxo bat sortzea ekarri du, are gehiago Miguel Gonzalez Bastida bertan egonda".

## PILOTALEKUA BETETA

22:15etik aurrera sartu zirenak, aurrez ez bazuten lagun edota seniartekoren bat tokia okupatzen behintzat, pilotalekuaren goiko parterako bidea hartu behar izan zuten. Bidean, azken eskaileran biolina eskuan zuen gizon ile etaizar zuria ikustea, -frak trajea soinean zeramala-, une batez Mozart-en garaietan bizi ginen ustea ere helarazi zien bertaratuei.

Ez dakit norbere kontsolamendurako edo zertarako, baina berehala entzun nuen gorako bidean, "hemen goian akustika askoz hobea dago" esaldia. Une hartan kontsolamendu hutsa zirudiene errealtitate bihurtu zen berehala, Iker Sanchez zuzendariak batuta mugimenduan ipintzearekin batera. Bergarako pilotalekuak, itxuran espero ez zitekeen soinua helarazi zigun belarrietara bertaratutakooi. Zalantzak ez, Orkestrak izan zuen horretan zeresana.

## 18 URTE ETA GERO, BERGARAN

26 urteko ibilbidearekin, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak tingo eusaten dio musika sinfonikoa eta batez ere euskal musika munduan barrena hedatzeko helburuari. 26 urteko ibilbidean, lau bider egin du Bergarako bidea, azkena, duela hemezortzi urte, hain justu.

Miguel Gonzalez Bastidaren *Lorea* lanarekin hasi zuten emaeldia, bertaratuak giroan sartzeko ez ezik, emozio puntu batez zipritzintzeko ere balio izan zuelarik. Izan ere, Miguel Gonzalez Bastidak, gazterik hil zitzaiola bati egindako lana da hura. Zortzi minuto iraun zuen lanaren ostean, Orkestra osatzen duten partaideen zati handi bat atera zen eskenatotik, hala nola perkusio taldea, fagot jotzailea izan ezik haizezko instrumentuak jotzen zituztenak, kontrabaxu gehienak, eta biolin gutxi batzuk ere bai, eskenatokian lehengoaren erdia zen Orkestra geldituz.

Fagota protagonista zutela, musika klasikoak inoiz eman duen komposatzaile handienaren, hots, Wolfgang Amadeus Mozart mai-suaren, *Fagot eta Orkestrako kontzertua* obra eskaini zuten jarraian. Diotenez, Mozartek hai-zezko instrumentu baterako komposatu zuen lehen lana da bigarren



Erabateko kontzentrazioa behar izan zuten Orkestrako kideek kontzertuan.

JOSETXO ARANTZABAL.

hau. Orkestrak lanaren garapenean fagota mendean hartzen badu ere, fagot solistik izan zuen bere abilezia erakusteko eta, ongi aprobatxatu ere. Lan honetan nabaria zen lehenengo lanarekiko aldaketa bat, ikuslea garaiez eta eskenatokiz aldatzera ere eroan zuena. Hiru mugimenduz osatzen da Mozartaren *Fagot eta Orkestrako kontzertua* lanaren: lehenengoan, *Allegro deitukoan*, forma kontrapuntistikoak nabarmendu ziren batez ere. Bigarrenean, *Andante ma Adagio* mugimenduan, fintasuna eta gainkargarik eza izan ziren nabarmenzeko ezaugarriak eta hirugarraren mugimendua, *Tempo di Menuetto* delakoak, Orkestraren, musikaren eta Mozarten esku bikainaren dotorezia igortzen zuen nota bakoitzean.

Horren ostean etorri zen Jose Maria Gonzalez Bastidaren *Legendas Vasca* obraren interpretazioa. Berriz ere, Orkestrako partaide eta instrumentu guztiekin, kontrabaxuak eskaintzen duen oinarri sendoaren transmisioko, trompeten botere eta handitasunak eta arpauen kutsu misteriotsuak, kontrastez beteriko obra baten aurrean kokatu zituen ikusleak. Dotorezia horrek eman zitzaion bukaera lehen zatiari.

## BIGARREN ZATIA, INDARTSU

Indartsu, beldurrezko pelikula batetan egongo bagina bezala hasi zen bigarren zatia. Perkusioak zati honetan izan zuen bere handitasunaren tamaina erakusteko aukera. Une horiek baina, egunsentien argitasun eta lasaitasunarekin

hautsiak izan ohi ziren, biolinaren soloek edota soilik sokazko instrumentuek interpretatutako zatiak zirelarik egunsentii horren oinarri.

*Sheherazade* printzesaren historia kontatzen zuen XIX. mendeko lan horrek, *Las mil y una noches* lanaren zuen inspirazio iturri, *Sheherazade suite sinfonica* idaztekoan. 41 minutuko interpretazioaren ostean amaitu zen kontzertua, ofizialki. Izan ere, oraindik bi abesti falta ziren entzuteko.

Lehena eskaini zutena, XIX. mendeko komposatzaile handienetariko baten lana izan zen, ezaguna eta, era berean, jendearen gustukoa izan ohi den abesti horietako; Brahms-en *Danza Hungara N° 5* eta azkena, Jesus Guridi mai-su gasteiztarraren *Amorosas* lan ezaguna.



Udal Pilotalekua bete egin zuten berargarrek.

JOSETXO ARANTZABAL.

## ESANAK



"Orkestra oso kontzentratuta ikusi dut eta Gonzalez Bastida anaien lanekin hurbiltasuna lortu dugu publikoarekin"

Iker Sanchez &gt; Zuzendaria

MUSIKA > GABONETAKO KONTZERTUAK

# Gabonetako kontzertuak, Oñatin eta Bergaran

Hasi dira Gabonetako kontzertuak ibarreko herriean; asteburuan, Oñatin eta Bergaran egin dituzte, eta guztira 11 talde aritu dira

**MIREN ARREGI > DEBAGOIENA**  
Gabonak gainean ditugula, Oñatin eta Bergaran egin dituzte asteburuan Gabonetako kontzertuak. Bergaran, egubakoitzean eta zapatuan egin zituzten kontzertuak; Oñatin berriz, domekan.

Bergaran egin dituzten bi Gabonetako kontzertuetan, herriko abesbatza talde batek baino gehiagok hartu dute parte. Egubakoitzean, Bergarako Orfeoi Txikiak, Orfeoi Txikitxoak eta Gabero taldeek eskaini zuten kontzertua Zabalotegian. Horrenbeste jende joan zen ikustera, denentzako tokirik ez, eta bi saio egin behar izan zituztela. Gabonetako abesatiak, euskal kantak eta jazz kutsuko lanak ere interpretatu zituzten. "Hiru hilabete hauetan egin dugun lana erakutsi gura izan dugu" adierazi zigun, talde horiek guztiak zuzentzen dituen Aitor Biain zuzendari oñatiarrak.

Zapatuko kontzertuan, bergararrek herritik haratagoko taldeei ere ireki zizkieten ateak, izan ere, sortu berri den Oñatiko Ganbara Gazte Abesatzak ere hartu zuen parte zapatuko kontzertuan. Aitor Biainen zuzendaritzapean, hiru taldek batera eskaini zuten kontzertua; Bergarako Orfeoiak, herriko Gabero taldeak eta Oñatiko Ganbara Gazte Abesatzak. Bi zati izan zituen kontzertuak. Lehenengoan, Bergarako Orfeoiak bakarrik abestu zuen; Rutter eta Chilcott bezalako konposatzaien ingelesen Gabonetako lanak eskaini zituzten. Bigarren zatian,

abesbatza guztiekin, *Mass of the Children* Rutterren bost mugimenduko obra ingelesa abestu zuten.

## OÑATIN, TALDE GUZTIAK BATERA

Oñatin atzo egin zuten Gabonetako kontzertua. Urtero bezala, Inazio Ibarroldoren zuzendaritzapean, herriko abesbatza talde guztiekin hartzutu zuten parte: hala nola, Musika Bandak, Oñatiko Ganbara eta Ganbara Txiki abesatzek, Oñati Abesatzak, Txantxiku Ikastolako Abesatzak, eta Parrokiako emakumezkoen eta gizonezkoen abesatzek. Guztiak batera, Gabonetako hainbat abesti eskaini zituzten.



Oñatin, herriko abesbatza guztiekin eta Udal Bandak eskani zuten kontzertua J.A.



Egubakoitzean, Orfeoi Txiki, Orfeoi Txikitxoak eta Gabero Zabalotegian. J.A.



Zapatuan, Orfeoia, Ganbara Gazte eta Gabero, Mariaren Lagundian. J.A.



Arianna Puello, egubakoitzean Arrasateko Gaztetxean.

MIREN ARREGI

Arianna Puello > Hip-Hop abeslaria

## "Ama izateak, ikuspegia zabaldu egin dit"

**J. BEREZIBAR/M. ARREGI > ARRASATE**  
Arianna Puello bere azken lana aurkezterako etorri zen egubakoitzean Arrasateko Gaztetxera. *Trece Razones* albuma, eta beste hainbat kontu izan genituen mintzagai

**Zein berezitasun ditu zure azken lan honek?**

Anbizio handiko lana dela esan daiteke. Diskoan hiru kantu kutsu latinoak dute. Gainontzekoan betikoa naiz. Ama izan naiz eta konposatzerako orduan ez naiz horren esplizitua izan. Hala ere, beti puntu berdinera iristen sainaten naiz, agian hitz

jarioa baino gehiago erabili dut garraztasun puntu hori.

**Ama izate horrek, esan daiteke zaildu egin dizula letrak egitea?**

Ez, alderantziz, guztia oso naturala izan da. Letrak modu naturalean atera zaizkit. Filosofia eta helmuga, berdinak izaten jarraitzen dute baina gauzak besete modu batera esanez.

**Ikuspegia zabaldu egin zaizu?**

Esango nuke baietz, hiztegi zabala goa erabiltzen lagundu dit, gauzak esateko beste modu bat era-biltzen.

**Hip-Hop musikari dagokionean nola dago merkatua?**

Ez dakit zergatik izango den, baina egia da talde gutxik egiten dutela aurrera. Irten egiten dira, baina mantentzea kosta egiten zaie. Pirateriaren eraginez, argitaletxeek ez dute talde berrien alde apustu egiten.

**Arrasaten egubakoitzean aurkeztu duzuen lana zer nolakoa da?**

Rap-a da. Soinua freskoagoa da, modernoagoa, hala ere hardcore atmosfera hori mantentzen da.



**i K E R**

**SUKALDEAK:**  
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43  
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

**FAGOR**  
Besteak baino gehiago



**kuxkuxeroa****Jokin Bereziartua**

## Sentimenduen zeresana 'Musikirolan'

Musika eta kirolak uste baino gehiago dute komunen. Eta neologismoen garaian gaudenez, *Musikirola* bataiatuko dut, zer-gatik ez. Protagonistak dira aste bukaerero, eta gurean ez da horren adibiderik falta. Eskaintza zabala eta anitza. Musikari eta kirolariek gozatuoz gozarazteko pribilegioa dute, ikusleen bihotzterara heltzeko gaitasuna. Hots, sentimenduek zeresan handia daukate *Musikirolan*: Igorleak hartzalea bereganatzetan badu denetariko sentimenduen eztanda eragin dezake. Atzean utzi berri dugun aste bukaera da horren isla.

Egubakoitzean **Arianna Puelloren** errima etengabeek arrastoa

### Gozatuz gozarazteko pribilegioa, ikusleen bihotzterara heltzeko gaitasuna

utzi zuten Arrasateko gaztetxera hurbildu zirenengen. Arrastoa ere Fiachras taldeak zapatuan Bergarako gaztetxeen utzi zuena. Ezberdina da **Jon Zangitu, Aitor Aldanondo, Aritz Artola** eta konpainiaren proiektu berria. Aurrelik punk-oil-a jorratu izan dute, baina estilo bera lantzen jarraitza "aspergarria" iruditu zitzaienez, beste bide bat hartu dute. Oso bide interesgarria, gainera. Bejondeiela.

Futbolaz haratago kirola bada-go; Arrasaten Santamasetako boulder txapelketaren eta herri krosaren arrakasta borobila izan da. **Patxi Usobiagak** –udatik Elgetan bizi ei da– zabalduztako bideetan, tentsioa eta *pikesanoa* nagusi. Eta gero, merezitako afaria. Krosean, bestalde, inoiz baino parte hartziale eta ikusle gehiago; **Aritz Kortabarria** eta **Marije Velasco** garaile beste behin. Ikuslen animoak eskalatzale eta lasterkariantzat ezinbesteko bultzada.

**((112))  
SOS DEIAK****astea GOITBn****Astelehena, 15**

> **Metz projektua mintzagai gaurko 'Magazinean'**

**19:45**

Metz projektuan bitartez, Goiena Sport enpresaren eskutik, Pilatesaren gainean arituko dira. Debagoineneko kirolegietako kirol eskaiztza kudeatzen du Goiena Sportek.

**Martitzena, 16**

> **Pilatesen gainean arituko dira 'Magazinean'**

**19:45**

Goiena Sport enpresaren eskutik, Pilatesaren gainean arituko dira. Debagoineneko kirolegietako kirol eskaiztza kudeatzen du Goiena Sportek.

**Eguaztena, 17**

> **'Zaharrak berri', helduentzako GOITBko saioa**

**20:45**

Zaharrak berri saioa eskainiko dute eguztenea. Kutxak babestutako saioa helduei zuzenduta dago. Hainbat gai jorratuko dituzte.

**Eguena, 18**

> **'Rock Privado' taldearen kontzertua GOITBn**

**20:45**

Danbaka lehiaketan Oñati eta Donostiako kideek osatzen duten Rock Privado taldeak eskaini zuen kontzertua emango dute GOITBn.

**Egubakoitzza, 19**

> **'Berria' saioan, informazioa zuen eskura**

**14:45**

Equerdiro, Goiartz Aranaren eskutik, egunak Debagoienean utzitako albisterik garrantzitsuenak jasoko dituzue Goiena Telebistan.

**arrasate irratia****FM 107.7**

> **Hainbat sari eskuragarri Arrasate Irratian**

**10:30**

Asteon, Kemen Lertxundi eta Juan Carlos Irizar musikarien CD-ekin osatutako pack-a zozketatuko dute irrati entzuleen artean. Horretaz gain, masaje saioa eskuratzeko aukera ere izango duzue 943 25 05 05ean.

**Zapatua**

10:00 Asteko gainbegiratua. Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskutik; Hirugarren adineko gainekoak (dieta, tertulia...) Zaharrak berri saioan, eta sexologia kontuak, bestek beste.

**Domeka**

10:00 Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**  
10:00-12:00 Igo Autobusera  
Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Ilunpean  
Teknoberriak  
Igo Euriborrala!  
Kantaka  
Zaharrak Berri  
Astearen errepasoa  
Zozketak  
Zorion agurra (parte hartzeko): 943 25 05 05 (irratia@goiena.com)  
11:55 Arrasateko albisteak, labur.  
12:05 Euskadi Irratiko albistegia  
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo Autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

**asteo hitzorduak****Erakusketa****ARRASATE**

> **Hilaren 22a arte ikus daitezke Jose Luis Zalakainen margolanak**

Datorren astelehena, hilak 22, izango da Jose Luis Zalakain (Villabona, 1959) margolariaren erakusketa bisitatzeko azken eguna, Harresi aretoan. 20 lan dira, akrilikoa. Irudi zehatzak zein abstraktuak egin ditu.

**Musika****ANTZUOLA**

> **Gabonetako kontzertua egingo dute gaur, astelehena, Musika Eskolakoek**

Musika Eskolako Antzuolako eta Bergarako ikasleek Gabonetako emanaldia egingo dute gaur, astelehena, udaletxearen, 18:30ean. Txikienek ahots emanaldia egingo dute, eta nagusitxoagoek instrumentuak joko dituzte.

**Zinema****OÑATI**

> **'Noches de tormenta' drama errromantikoa emango dute gaur**

Noches de tormenta filma ikusteko aukera izango da gaur, astelehena, Oñati kultura etxearen, 19:30ean. Richard Gere eta Diane Lane dira protagonistak; norbere bizitza krisian dagoenean elkar ezagutzen dute.



**ARETXABAleta Miren**  
Arietaleanizbeaskoa! Abenduaren 16an. Zorionak guapisima! Egun zoriontsua izan dezazula! Patxo handi bat zure ikasle txikien partetik.



**BERGARA Mariñe Gonzalez Barrutia**  
Abenduaren 16an, 8 urte. Zorionak familiako partetik eta bereziki Miren partetik.



**ARRASATE Julene Sarabia Mendiola**  
Abenduaren 2an, 5 urte bete zituen. Zorionak sukaldari! Zure guraso eta Jakesen partez. A ze bizkotxo gozoa...



**OÑATI Iker Arregi**  
Abenduaren 2an, 8 urte bete zituen. Zorionak Iker! Urteak aurrera doaz eta patxo handi bat denon partetik.



**ANTZUOLA Bego Oncala**  
Abenduaren 3an. Zorionak eta urte askotarako! zure familiaren partez.



**ARRASATE June Iriarte Balerdi**  
Abenduaren 3an, urtebetek. Zorionak Aner, Malen eta Naroan partetik. Patxo handi-handi bat zuretako!



**ARRASATE Gorka Llodio Bergaretxe**  
Abenduaren 3an, 13 urte bete zituen. Zorionak eta besarkada handi bat familiako partetik!



**BERGARA Josu Osa Urzuriaga**  
Abenduaren 4an, 5 urte bete zituen. Etxeko danon partetik zorionak eta patxo handi bat!



**ARAMAIO Maddi Garcia Bidaburu**  
Abenduaren 5ean, 5 urte bete zituen. Zorionak potxola familiako partez. Batez ere Nahiaren partez!



**OÑATI Unai Zabaleta**  
Abenduaren 17an 11 urte betetzen ditu. Zorionak Unai! Ondo pasa zure eguna zure amaren lagunen partez.



**OÑATI Leire Arregi**  
Abenduaren 17an, 4 urte betetzen ditu. Zorionak! Asko maite zaitugu denok, preioxo.



**OÑATI Uxue Bolinaga**  
Abenduaren 8an 27 urte bete zituen. Zorionak guapa! Patxo haundi bat lagunen partetik. Gabonetan zelbrauktu digestibo batzuk edanaz eljeje!



**ARRASATE Ibai Tamayo**  
Abenduaren 8an, 2 urte bete zituen. Zorionak Ibai! Fuerte itzaliko zenituen kandelak, ala? Patxo handi bat. Naroa.



**OÑATI Jon Sanchez**  
Abenduaren 8an, 2 urte bete zituen. Zorionak politori!!! Patxo handi-handi bat etxeko danon partez.



**BERGARA Asier Reguero**  
Abenduaren 8an 8 urte bete zituen. Zorionak eta patxo handi-handi bat aitzitxa, osaba-izeko eta lehengusaren partetik.



**ARRASATE Uxue eta Luken**  
**Urrutia Abarrategi**  
Abenduaren 8an 2 urte egin zituzten. Zorionak bikote eta patxo potolo bana etxekoena eta lagunen partetik.




**BERGARA Iñaki Martinez eta Maria Martinez**  
Iñakik 44 urte abenduaren 14an eta Mariak 6 urte 16an. Zorionak etxekoena partetik.



**BERGARA Itxaso Osorio Seco**  
Abenduaren 16an 5 urte bete ditu. Itxasok. Etxekoena partetik, egun ona pasa dezazula eta laztan handi bat!



**ARETXABAleta Ilargi Villar**  
Abenduaren 18an, urtebetek. Zorionak Ilargi. Orain arte bezala jarraitu. Patxo potolo-potolo bat, pipilintxo. Bihotz-bihotzez, aitatto eta amatxo.



**ARRASATE Mikel Goñi Gutierrez**  
Abenduaren 18an 5 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handi bat, etxekoena partetik.



**OÑATI Axen Nieto**  
Abenduaren 12an. Zorionak amama! Hiru xagutxoen partez: Garazi, Aimar eta Libe.



**OÑATI Amaia Ugalde**  
Abenduaren 12an 9 urte. Zorionak Oñatioko atxintxikilarri pinpirinenari. Patxo handi bat Uxue, Beñat, aita eta amaren partez. Zorionak panpoxa!!!



**ARRASATE Larraitz Kortabarria**  
Abenduaren 12an. Zorionak amatxo! Markelen partez patxo handi-handi bat! ondo pasa eguna eta urte askotarako!



**BERGARA Paco Moreno Flores**  
Abenduaren 12an 50 urte bete zituen. Zorionak eta urte askotarako! Emaztea, alabak eta Iban.



**ARRASATE Espe Lizarralde Gallastegi**  
Abenduaren 15ean. Zorionak etxeko danon partetik eta batez be Luken eta Eleneren patxo potolo-potoloak! Pastel goxo-goxoezin ospatuko dou!!



**ARRASATE Fernando Oncala**  
Abenduaren 15ean, 36 urte. Zorionak eta urte askotarako. Luken eta osaba Trikiaren partez, jejeje.



**BERGARA Nerea Aiestaran**  
Abenduaren 16an. Zorionak guapisima! Ondo onto pasau zure urtebetetze eguna eta jaiera o betakin ospatzenean dogun! Kuadillakuen partez mila patxo.



**BERGARA Lier Eguren**  
Abenduaren 19an, 4 urte betetzen ditu. Zorionak eta patxo handi bat etxekoena partetik.



**BERGARA Markel Arrieta Gorosabel**  
Abenduaren 20an, 2 urte betetzen ditu. Zorionak bitxo! Familia guztien eta bereziki Jonen partetik.



**OÑATI Ainhoa Quesada**  
Abenduaren 1ean, 21 urte. Zorionak eta urte askotarako! Laztan handi bat kuadrillakoen partez!



**ANTZUOLA Oroitz Jauregi**  
Abenduaren 2an, 12 urte. Besarkada handi-handiak etxeko guztien partetik.



**ARETXABAleta Inma Alcalde Antia**  
Abenduaren 8an, 35 urte. Zorionak eta patxo bat etxeko guztien partetik.



**ARETXABAleta Josu Hernando**  
Abenduaren 8an, 2 urte betetzen ditu. Zorionak Josu! Etxeko guztien partez.



**OÑATI Beatriz Telleria**  
Abenduaren 11 Zorionak ama, asko maite zaitut eta zure lagunen partez ere zorionak Muuaak!



**OÑATI Jose Arregi**  
Abenduaren 11n Zorionak aitaita. Patxo hau denon partetik da. Ask maite zaitugu. Muuaak!



**OÑATI Aitziber Etxeberriarteun**  
Abenduaren 9an 32 urte bete zituen. Zorionak amatxo! Oso ondo pasau zure urtebetetze eguna. Iñaki, Oier eta Jon Mikel.

## ESKER ONA

**Emeterio Murgiondo Larrañaga**

Bergaran hil zen 2008ko abenduaren 6an, 82 urte zituela

Hileta-elizkizunera etorrakoei eta samin-agurrik bidali dizkigu zuenei, eskerrik asko sendikoen izenean



Bergaran, 2008ko abenduaren 15ean

**ESKELAK**

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,

deitu telefono honetara egun eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguztuen eguerdia baino lehen:

**Arrasate** Goiena: Otalora lizenziaduna 31. 943 25 05 05 / **Goiena**: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

**Ofatik** Biklikon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65 **Aretxabaleta** Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramalo**: Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22. **Antzuola**: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.


Eskelaren prezioa: **100 euro**.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120 euro**.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle (CIES).**



## agurrak



BERGARA  
**Benat Arin Etxabe**  
Abenduaren 5ean,  
3 urte bete zituen.  
Zorionak eta patxo  
handi bat Aneren  
partetik.



BERGARA  
**Ibai Rodriguez  
de Zerio**  
Abenduaren 5ean,  
urtebetete. Zorionak  
eta patxo handi bat  
etxeko partetik.



ARRASATE  
**Luken Martin  
Izurragi**  
Abenduaren 6an,  
5 urte bete zituen.  
Zorionak Luken!  
Patxo handi bana  
Gari, amatxo eta  
aitatxoren partetik.



ONATI  
**Xabier Barrena Biain**  
Abenduaren 6an,  
9 urte bete zituen.  
Zorionak txapeldun!  
Etxeko partetik  
ondo pasa zure  
egunean!



ARRASATE  
**Maider Martiarena**  
Abenduaren 6an 2  
urte bete zituen.  
Zorionak printzexi-  
tal Goizean bolo-  
bolo ederra eta  
atsaldien txokolata-  
da hobiel! Disfrutau  
Potatokin!  
Muxutxuak etxeko-  
en partetik!



ARRASATE  
**Malen Balerdi  
Berezibar**  
Abenduaren 6an, 5  
urte. Zorionak prin-  
tzesa! Pablo, Aner,  
Martin, Naroa, June  
eta Noran partetik.



BERGARA  
**Oihana Marzan**  
Abenduaren 7an.  
Angiozarko Lady  
Marionek urteak  
bete ditu. Urte  
askotarako! Patxo  
bat!



ARRASATE  
**Leire Garcia**  
Abenduaren 7an, 5  
urte bete zituen.  
Zorionak Arizmendi  
Sanvi Txikiko lagu-  
nen partetik.



ARETXABAleta  
**Maitane Davila  
Sillero**  
Abenduaren 7an, 9  
urte. Zorionak eta  
urte askotarako!  
Jarraitu jator eta  
denon lagun, orain  
arte bezala. Agur  
eta patxoak.



ESKORIATZA  
**Jaione Larrañaga**  
Abenduaren 9an.  
Zorionak Jaione!  
Patxo handi bat  
Jauritzikitik!



ARETXABAleta  
**Oier Madinabeitia  
Martelo**  
Abenduaren 7an 7  
urte bete zituen.  
Zorionak, mutil  
handi!! Patxo  
handi bat familiakoen  
partetik.



ELGETA  
**Jon Irizar**  
Abenduaren 12an 4  
urte egin zituen.  
Zorionak eta patxo  
handi bat amatxo  
eta aitatzoren par-  
tetik.



BERGARA  
**Maitane Suinaga Ena**  
Abenduaren 15ean  
4 urte. Zorionak!  
Alazne, amatxo eta  
aitatzoren par-  
tetik.




ONATI  
**Edurne Carretero  
Agirre**  
Abenduaren 9an 2  
urte. Zorionak  
printzesa! Patxo  
handi bat etxeko  
guztien eta Agu-  
raineko laguntxoen  
partetik, bereziki  
Leire eta Nahia.



ONATI  
**Enaitz Ugarte**  
Abenduaren 10ean  
5 urte bete zituen.  
Zorionak eta  
patxo!



ESKORIATZA  
**Ander Osa Sandoval**  
Abenduaren 10ean,  
27 urte. Zorionak  
eta patxo bat, Leire  
neska-lagunaren  
eta Aretxabaletako  
familiaren partetik.



ANTZUOLA  
**Eli Iturbe**  
Abenduaren 11n.  
Zorionak Eli!  
Oñatiko lagunen  
partetik.



ARRASATE  
**Aner Ezkurra**  
Abenduaren 11n.  
Etxeko gizontxoak  
4 urte! Zorionak  
eta patxo potolo-  
potoloa etxeko  
partetik!

## jaiotakoak




**Ane Goitia Oria**  
Oñati > 3,300 kilo. Abenduaren 3an.  
Gurasoak: Nerea (Arrasate) eta Josu  
(Oñati). Argazkian, Ane jaioberria,  
lo.



**Janire Lopez Moreno**  
Elgeta > 2,900 kilo. Abenduaren  
7an. Gurasoak: Asun (Elgoibar) eta  
Iker (Eibar). Argazkian, Janire jaio-  
berria, gurasoekin.



**Manex Repecho Zurbano**  
Aretxabaleta > 3,330 kilo. Abendua-  
ren 8an. Gurasoak: Ana (Aretxaba-  
leta) eta Mikel (Aretxabaleta). Argaz-  
kian, Manex jaioberria, sehaskan lo.



**Iker Regodesebes Barruttiabengoa**  
Arrasate > 3,490 kilo. Abenduaren  
12an. Gurasoak: Amagoia (Arrasate)  
eta Oskar (Arrasate). Argazkian,  
Iker jaioberria, sehaskan lo.



**Laia Bollon Rodriguez**  
Arrasate > 2,410 kilo. Gurasoak:  
Monika (Arrasate) eta Aitor (Arra-  
sate). Argazkian, Laia jaioberria,  
gurasoekin.



**Jon Axpe Altube**  
Oñati > 4,070 kilo. Abenduaren 9an.  
Gurasoak: Nora (Oñati) eta Jokin  
(Oñati). Argazkian, Jon jaioberria,  
sehaskan lo.



**Peru Larrañaga Vazquez**  
Arrasate > 3,850 kilo. Abenduaren  
8an. Gurasoak: Naiera (Arrasate)  
eta Mikel (Arrasate). Argazkian, Peru  
jaioberria, sehaskan lo.



**Manex Urdanpilleta Lizardi**  
Oñati > 3,100 kilo. Abenduaren 9an.  
Gurasoak: Aintzane (Oñati) eta Asier  
(Oñati). Argazkian, Manex jaioberria,  
sehaskan lo.



**Aiora Minguez Zangitu**  
Bergara > 2,850 kilo. Abenduaren  
7an. Gurasoak: Jasone (Bergara) eta  
Julen (Bergara). Argazkian, Aiora  
jaioberria, amarekin.



**Danel eta Oxel Zubillaga Olabe**  
Aretxabaleta > 2,670 kilo eta 3,020 kilo.  
Abenduaren 10ean. Gurasoak: Olatz  
(Aretxabaleta) eta Jon (Aretxabaleta).  
Argazkian, anaiak, amarekin.




**Urko Bengoa Uriarte**  
Oñati > 3,360 kilo. Abenduaren  
6an. Gurasoak: Jaione (Oñati) eta  
Jon (Oñati). Argazkian: Urko jaiob-  
berria, amarekin.




**Iker Valor Heis**  
Bergara > 3,975 kilo. Abenduaren  
10ean. Gurasoak: Asun (Bergara)  
eta Joaquin (Arrasate). Argazkian,  
Iker jaioberria, amarekin.



**Eneko Eguren Manterola**  
Bergara > 3,450 kilo. Abenduaren  
11n. Gurasoak: Lorea (Bergara) eta  
Felix (Bergara). Argazkian, Eneko  
jaioberria, amama Maixabelekin.



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32



Maitane Segurola > Modeloa

## "Miss aukeratua ez izatearekin pozik nago"

**IKER BARANDIARAN > ARRASATE**  
Maitane Segurola ezaguna egin zen IZUAROA Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoekin *Trikitrraka Trikittron* saioko aurkezlea izan zelako. Atletismoan domina asko irabazitakoa, modelo eta aurkezle lanetan ere ari-tzen da. Azkenekoz, Ukan sarietan.

Zer pentsatzen duzu gaur egun Naroa Agirre ikusten duzunean? Ez al dizu atletismoa utzi izanak pena ematen?

Ez dit inbibidatzen berezirik emanen. Txikitian hasi nintzen atletismoan eta altuera jauzian eta errelebotan domina batzuk eskratu nituen. Oso ondo pasa nuen, baina heldu zen momentu bat bi gauzak eramatea zaila zena, eta ikasketen alde egin nuen.

Noiz eta zelan hasi zinen modelo lanak egiten?

Ahizpa bat aurretik ibilia zen eta behin casting batera laguneko eskuatu zidan. 16 urte izango nituen eta pixkat prestatu ostean hara joan ginen. Zortea izan nuen eta hartu egin ninduten. Hortik aurrera, hainbat lan egin izan ditut.

**Egia da zure Txiskola-ko lehen saioko bideoa inork ikusteko moduan gordeta daukazula?**

(Barre) Ez dut bota, baina gorde-gordeta daukat. Jantzita neukan arroparekin oso desberdin ikusten nintzen eta gainera oso *berde* nengoentzat. Bestalde, hasieran *atrezzo* zati bat nintzen, baina ostean gero eta paper gehiago izan nituen. Asko ikasi nuen han eta oso ondo pasa genuen.

**Biologia ikastera joan zinen irakasle izan gura zuelakoa. Hala da?**

### TEST-A

**Herria:** Donostia. **Adina:** 29 urte.

**Ikasketak:** Biologia eta Onkologia Molekularra. **Zaletasunak:** Antropologia, Genetika, sabel dantza, Internetetik reality-ak ikustea eta Elhuyarreko aldizkariak. **Nora egingo zenuke bidai bat?** Zelandia Berriko joango nintzateke. **Animaliak gustuko dituzu?** Bai. Dokumentalak ikustea gustuko dut, eta tximinoek nire arreta pizten dute. **Zenbatero jaten duzu txokolatea?** (Barre) Egunero.

Bai. Betidanik gustatu izan zait irakaskuntza eta hori zen benetako arrazoia, baina biologiak zeharo harrapatu ninduen, eta zer esanik ez genetikak.

**Puntu bakarragatik ez zintzuten Miss Gipuzkoa aukeratu, baina zu horrela pozarren gelditu zinen, ezta?**

Bai, batetik modelo munduak ez nau asko erakartzen, nahiz eta horren bitartez gauza asko ikasi ditudan. Eta, bestalde, bane-kien miss izateagatik konpromiso larregi izango nituela.

**Egon zara aspaldi Donostiako Igara auzoan han bizi den ige-la ikusten?**

(Barre) Aritzalde natura elkartean nengoela jakin genuen EAE osoan *ranita meridional* delako igelaren familia bakarra Igaran zegoela. Hala, igel horren alde hainbat lan egin genituen eta oihartzun dezente izan zuen ekinmenak. Donostiako autobusetan igel hori ageri da eta Txirri, Mirri eta Txiribitonek kantu bat egin zioten hari. Oso pozgarria izan zen ekimena.



AURKEZPENAK Aurkezen eta modelo lanekin asko ikasi du.

IKER BARANDIARAN

### ai, ene!



### Musikarekin edonora

Musika eta kirola maite duenak ez du askotan denbora iza-tzen biak aldi berean egiteko. Irudian, konponbidea: bateria joleendako bizikleta. Hala ere, oreka mantentzea eta aldi berean kantuaren erritmoa jarraitzea ez da erraza izango...

<http://www.sarda.es>

### biharamuna

Iñigo Biain


### Krisiaren azalpen nekeza

**U**ste dut aurretik ere idatzi izan dudala krisiaren inguruan, baina oraingo honetan ere halaxe egitea erabaki dut, horretarako atzera begirada bat botaz. Ni gazteagoa nintzenean, nire etxearen telebista bakarra zegoen, automobil bakarra, irratia bakarra, ... Eta gainera, hauekaren bat izorratzen zenean, konponzera eraman, eta berdinarekin jarraitzen genuen denboraldi luze batez. Gaur egun, etxe bakoitzean bizpahiru telebista aparrailu aurkitzen ditugu, gela bakoitzean hainbat aisiaaldi-tramankulu (musika

ekipoak, mp3ak, mp4ak, ordenagailuak, telefono mugikorrak, *Playstation*-ak, ...), eta hauetakoren bat izorratzen bada (lehen baino maizago gertatzen dena), ahaztu konponzearaz, ez baitago halakorik egiterik. Berria erosia, eta aurrera. Eta hala ere, automobilaren industria krisian da, elektronikaren industria berdin, baita etxetresnen industria eta altzariena ere ... Eta ni errudun sentiarazten naute, ez dudalako agian aski kontsumitzen, edo kontsumitzen dudanak gehiegi irauten didalako agian.



### eguraldia



MAXIMOA

+8

MINIMOA

+7

Goizean euri dezente egingo du eta arratsaldean aterkia gordezteko aukera izango dugu. Tenperaturak, gorakada txiki bat.

[www.euskalmet.net](http://www.euskalmet.net)

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)  
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

**Trikitixa**  
Bexamela ta pastela (Maixa ts txori) | **BEXAMELA**  
Bokespok (Kepa Junkera) | **BOKESPOK**  
Hik lan eta nik ja! (Tapis) | **HIK**  
Itzal eta batzen (Kaxano) | **ITZAS**  
Kupela (Eneko eta Larrañaga) | **KUPELA**  
Milga galera (Alatz / Maider) | **MILAI**  
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**  
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | **HIRA**  
Txanpon baten truke (Aitz / Maider) | **TXANPON**

**Himnoak**  
Eibar | **EBAR**  
Athletic Club BILBAO  
Osasuna | **OSASUNA**  
Real | **REAL**  
**Herrikoia**  
Bagaret | **BAGARE**  
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**

**WEBGUNEAN** [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE hutsunea  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP hutsunea  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL hutsunea  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ hutsunea

**KODEA**  
**KODEA**  
**KODEA**  
**KODEA**

**5767**  
zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZA

**SOINUAK** ERREALAK (2 SMS)  
**LOGOAK** (SMS 1)  
**KODEA**

Ikuus Mendizaleak | **MENDI**  
Pinxo-pintxo | **PINTXO**  
San Simon eta San Judas | **SAN**  
**JAIETAKOAK**  
Artillerio dale fuego | **ARTILLERO**  
Marijaja (Kepa Junkera) | **JAJA**  
San Fermín | **FERMIN**  
San Martzaleko alardea | **SAN MARTZIAL**  
**Folk**  
Arratsalde honetan (Sortean Bela) | **SOROTAN**  
Bai euskarari (Panxka) | **BAI**  
Bakazealak (Anje Duhaldet) | **BAKE**  
Bizkaia Maite (Benito Lerkundi) | **BIZKAIA**  
Eperna (Anje Duhaldet) | **EPERRAK**  
Euskal Herriko Euskaraz (Osorko) | **EUSKAL**  
Euskaldun berriaren baladak (Osorko) | **POSSIBLE**  
Ez da posible (Ruper Ordorika) | **POSSIBLE**  
Furra Furra (Osorko) | **FURA**

**REAL**  
Alboko Athleti | **ALBOKA**  
Athletic Irupe!! | **IEUP**  
Buztan bertsoa | **BERTSO**  
Hartu... Attaren ta semea.. | **AITAREN**  
Hartu... Ansar | **ANSAR**  
Hartu... Argentinarra | **ARGEN**  
Hartu... Mexikarra | **MEXIKO**  
Hartu... Miamioll | **MAMOL**  
Independentzi | **INDEPEND**  
Irrintzia | **IRRINTZI**  
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**  
Milazul (pilota) | **MILAZU**  
Suprinua | **SUPRINU**  
Tobera | **TOBERA**  
Txalaparta i Txala | **TXALAPARTA**  
Txanbera | **TXANBERA**  
TxoxoDX | **TXOTX**

**SMSSOINU**  
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

### OHARRAK

1. BATERAGARITASUNA: Begirat zure poltsikoko telefonora bateratzeko den eskaientz ditugun produktuetkin, helbide honean: [www.smsoinu.com/bateragari](http://www.smsoinu.com/bateragari)

Bertan jasoko du beharreko dizen informazio gutia.

2. BALDINTZAK: Edukitak eskaratzeko, beharrezko da GPRS sistema aktibatuta izatea, GPRS sistema aktibatatzeko, jarraitzez zure hornimaillearenaren hamemanetan. Alfa ematea doan da eta Ko jantsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu gutxiten dela eta GPRS sistema alta ematea doan dira.

\* Euskaldet deitu 900 84 02 00 telefonora. /\* Vodafone: deitu 123-n\*/ // Movistar: deitu 902 01 21 48.

3. ZALANTZAK: Edozein zaldanta dudu, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. PERTSONALIZazioak: Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabilizaleek esku dezaketa nahi baduzu, jarri gurekin hamemanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.